



argia

2015eko urriaren 25a | LXXVIII. urtea | 2.480 zenbakia | 3,90 euro



KLIMA ALDAKETA
BUKATU DA
EPELKERIAZ
JOKATZEKO
GARAIA

GARA hitz-jokoa



SARIAK

- Bi pertsonentzako itsasbidaia Mediterraneotik barrena
- Iphone 6S edo Galaxy S6 Edge
- Ipad Pro, Ipad Air 2 edo Ipad mini 4
- Bi pertsonentzako 2 hegaldi Europara
- Arzak enean 2 pertsonentzako bazkari edo afaria
- Mugaritzen 2 pertsonentzako bazkari edo afaria
- Kindle paperwhite eta Libbuk 2
- Bi pertsonentzako 3 asteburu nekazaletxe batean
- 30 XXL harpidetza

LORTU ZURE
KARTILLA
urriaren 25 eta azaroaren 1 ean
GARA-REKIN

NOLA JOKATU DEZAKEZU?

- Astelehenetik ostegunera denbora-pasa bat argitaratuko dugu GARAKo azken orrialdean.
Egun bakoitzaren emaitza kartillan ipini, eta kartilla osatuta duzunean kioskoan entregatu. Oso erraza da

Astero joko bat, astero sari zoragarriak zure eskura!

Sariak zuzen dauden kartilla guztien artean zozketatuko dira. **Zorte on!**



Azaleko muntaia:

DANI BLANCO

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekora, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagañia Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko urriaren 25a, 2.480. zenbakia

ASTEKO GAIA

KLIMA ALDAKETA Munduaren geroak errezeta berriak behar ditu. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

JUANJO BARQUILLA: «Jendeari harrigarri zaio inon baino kafe edo te hobea hartzea Agurainen!». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

AITOR ZABALGOGEAZKOA, MUGARIK GABEKO MEDIKUAK: «Gobernuztako aitzakia gara, baina guk tirta jartzen dugu, ez gara konponbidea». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

IRITZIAREN LEIHOA

KATALUNIAKO ETORKIZUNARI BEGIRA

ASIER BLAS MENDOZA / 18

AZAL APAIN IÑAKI MURUA / 20

JARRERA KRITIKOA JESÚS MARI GONZÁLEZ MARTÍNEZ / 21

PABLO SASTREAREN ARTIKULUARI ERANTZUNEZ

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Badugu alternatiba. OIHANA ETXEBARRIETA / 20

ERDIKO KAIERA

‘URA IXURIRIK’ ERESIA Gizonezkoek taldean obratuko dute andere oreinaren ehiza. ITXARO BORDA / 23

GALTZAGORRI ELKARTEAK 25 URTE Irakurle harrobia zaintzen. ITZIAR UGARTE IRIZAR / 26

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

TELESAILAK GAIZKA IZAGIRRE / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 31

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 32

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 33

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

IHESI MUGAKO BIDEA (BERA-URRUÑA) Mugako kontuak, belarrira. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

ABKHAZIA Kaukasoko nazio txiki baten independentzia prozesua. IBAI TREBIÑO / 40

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Etxearen alokairua lan sozialaren ordainetan. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 43

EUSKARA IKASLEAK ONLINE Orotariko euskaldunak lotu ditu sareko mintzapraktikak. IURE EIZAGIRRE / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Baratze bat nahi dizut egin Siria setiatu honetan. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Munduaren geroak errezeta berriak behar ditu

Sistema aldatu, ez klima. 2009an Kopenhagen egindako klimaren gailurrean gizarte zibileko mugimenduek plazaratutako leloa indar biziz dator atzera, abenduan Parisen egitekoa den bilkura historikoaren atarian. Zientzialariei jaramon egitera, agortzear da beroketa globalarekiko epelkeriaz jokatzeko garaia. Ez da falta, hala ere, Parisko COP21en porrota dagoeneko iragarri duenik, egoera honetara ekarri gaituzten planteamenduak berriro mahai gainean ikusita.

| UNAI BREA |

1995ETIK URTERO EGIN DA klima aldaketari buruzko NBERen goi-bilera, ingelesezko COP siglekin ezaguna. Aurtengo azaroaren 30etik abenduaren 11ra bitartean egingo da hogeita batgarrena (COP21) Parisen, eta honezkero nonahi entzun eta irakurriko zenuenez, inoiz egindako garrantzitsuena izan daiteke. Horren zergatia labur azaltzen da: urte askoan luzamendutan ibili ostean, iritsi da garaia munduko estatuek behingoz klima aldaketari aurre egingo dion akordio

zabal eta eraginkorra adosteko, erabateko klima-hondamendia saihestu ezingo dugun unea gertu dugu eta.

Hala diote zientzialariek, eta ia mundu guztia bat dator ondorioei dagokienez. Baina gauza bat da diagnostikoa onartzea, eta beste bat, askoz zailagoa, zientzialariek gomendatzen dituzten neurriak politika errealean txertatzea. Hori da klimaren gailurren historia laburrak orain arte eman digun irakaspenetako bat.



KRIS KRÜG-CC BY



ANA LIBSCH / IPS

COP21en gailurraren helburua Kyotoko Protokoloa ordezkatuko duen nazioarteko akordio globala hitzartzea da, hura 2012an agortu baitzen –2020ra arte luzatzea erabaki zen–, eta oraingoz ez baita lortu maila bereko itunik adostea. Kyotokoak ez bezala, Parisko hitzarmenak munduko herrialde guztiei eragingo die; hala, bilkura hasi orduko denek aurkeztu behar dituzte euren asmoak berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak murrizteko.

Ekarpen guztiak batuta, ondorioa izan behar da planetaren batez besteko tenperatura globalaren igoera ez dadila izan 2 °C-tik gorakoa 2100. urterako, erreferentziazat industrializazioaren aurreko garaia hartuta –orain 0,8 °C-koa da igoera hori–. Hortik gora oso zaila izango da klima aldaketaren ondorioei egokitzea, IPCCk, 1998an sortutako nazioarteko adituen lantaldeak, honezkero argi utzi duenez. Izan ere, nahikoa lan izango da dagoeneko saihestu ezin izango dugunera egokitzea.

Beste gauza garrantzitsu pare bat ere esan zuten IPCCk iaz emandako txostenean –bosgarrena, erakundea sortu zenetik–: batetik, klima uste genuena baino azkarrago aldatzen ari dela, eta horren ondorioak aurreikusitakoak baino latzagoak direla; bestetik, zalantzarik gabe giza jardueraren ondoriozko gas isurketa dela egoera horren eragile nagusia. Mende amaierarako karbonorik gabeko ekonomiarantz jo beharko genuke, mehatxua saihesteko. Eta neurriak lehenbailehen hartzen hasi beharra dago.

Gizarte zibileko talde ugari, tartean Bizi! mugimenduak, deitu dute Parisen egingo diren mobilizazioetara, COP21ak irauten duen denboran.

2,7 gradutan gaude momentuz

Iaz Liman egindako COP20 goi-bileran adostu zenez, munduko herrialde guztiak beren murrizketa asmoak –INDC ingelesezko siglekin ezagunak– aurkeztu behar zituzten aurtengo urriaren 1a baino lehen. Horren ostean, NBEk azaroaren 1era arteko epea izango du INDC guztien sintesia egiteko, eta sintesi hori da COP21ean negoziatuko den dokumentu garrantzitsuenetako bat.

Lerro hauek idazteko unean, urriaren erdi-erdian, 70en bat herrialdek ez dituzte oraindik euren asmoak agertu, bai ordea gehien igortzen dutenek (ia emisioen erdia AEB, Txina eta Europar Batasunari zor zaie).

Climate Action Tracker webgunean agerienez, aurkeztutako helburuak aintzat hartuta aurreikus daiteke beroketa 2,7 °C-koa izango dela; beste iturri batzuen arabera, hiru graduraino ere irits liteke. Balio beza erreferentziazat Ibon Galarraga Basque Centre for Climate Change-ko (BC3) ikerlariak emandako datu honek: emisioen ikuspuntutik ezertxo ere egingo ez bagenu, 3,6 eta 4,2 °C bitarteko beroketara joko genuke.

Zientzialariei zaila suertatzen zaie horrek zer ondorio zehatz ekarriko lukeen aurreikus-tea, baina ohartarazi dute gaur ezagutzen dugun zibilizazioa bateraezina litzatekeela hain tenperatura igoera handiarekin.

Kyotoren porrota...

Galarraga ingurumen-ekonomialaria da, eta hurbiletik jarraitu ditu azken urteetako klimaren goi-bilerak. Aurrekariez mintzatu zaigu



PETE SOUZA

lehenik, hots, Kyotoko Protokolo honezkero agortuaz: “Balorazioak bi alde ditu. Alde instituzionalari begira akordioa interesgarria izan zen, ingurumen arloan inoiz lortu den handiena baita”. Ez du funtzionatu, baina.

Kyotoren helburua, askoren ustez xumegia, 2012rako BEG emisioak 1990. urtekoak baino %5 txikiagoak izatea zen. Porrota begien bistakoa da: jaitsi beharrean, CO₂ eta enparauen isurketak igo egin dira. 2013koak %61 handiagoak izan ziren 1990ekoak baino.

Hainbat arrazoik azaltzen dute, Galarragaren esanetan, protokoloak huts egin izana. Batetik, BEG igorle historiko handiena, AEB, akordioa indarrean sartu aurretik irten zen bertatik. Bestetik, Kyotok 40 herrialde baino gutxiagori ezarri zien emisioak gutxitzeko –edo, zenbait kasutan, langa batetik gora ez igotzeko– beharra; 90eko hamarkadan industrializatuenak zirenei, hain zuzen.

Hala, akordioak ez dakarkio inolako bete-beharrik gaur egungo isurle handiena den Txinari, ez eta azken urteetan nabarmen hazi diren beste batzuei: India, Brasil... Gainera, 2012an hitzarmenetik irten ziren Kanada, Errusia eta Japonia, besteak beste. Gaur egun protokoloan geratzen diren herrialdeek munduko emisioen %15 baizik ez dute eragiten.

... eta Kopenhagerena

Tresna herren horren ordezkoa 2009an Kopenhagen egindako goi-bileran adostu behar zen, baina gailur hura porrot handia izan zen; hala iritzi zioten parte hartu zuten gobernu askok eta talde ekologista guztiek. Aurreikusita zegoen hitzarmen loteslearen orde, azken unean Txinak eta AEBek inposatutako akordio politiko bat onartu zen,

Azken urtebetean Txinak eta AEBek, munduko bi igorle nagusiek, hainbat egitasmo aurkeztu dute berotegi efektuko gasen emisioak gutxitzeko. Jarrera aldaketa horrek itxaropena piztu du, konpromisoak oraindik apalak diren arren. Argazkian, Wen Jiabao eta Barack Obama, 2009ko Kopenhageko Klimaren gailurrean. Orduko hartan, bi gobernuen jarrera izan zen bilkuraren porrotaren arrazoi nagusia.

borondatearen arabera. Besteak beste, beroketa globala bi gradutik gorakoa ez izateko helburua adostu zen Kopenhagen.

“Kopenhage porrota izan zen, bai, baina ez hainbestekoa”, uste du Ibon Galarragak; “itxaropenak oso handiak ziren, bai, baina ez ziren errealistak, argi zegoen AEB eta Txina ez zeudela akordio loteslera iristeko prest”. Bilera hartatik atera ziren gauza onen artean, Klimaren Funts Berdearen sorrera aipatu du BC3ko ikerlariak: klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko herrialde pobreenetarako dirulaguntza, herrialde garatueto gobernuak eta sektore pribatuak elikatu beharrekoa.

2020tik aurrera urtero 100.000 milioi dolar jartzea da asmoa –oraingoz kopuru horren hamarrena bildu da–, baina sei urte igaro dira eta oraindik ez dago argi funtsak nola funtzionatuko duen, ekologistek kritikatu dutenez. Greenpeaceko Tatiana Nuñoren berbetan, egiteke dago oraindik horri buruzko bide-orri argi bat, herrialde bakoitzak zenbat diru eta zer irizpideren arabera ipiniko duen, eta diru hori nork eta nola kudeatuko duen zehaztuko duena; momentuz, Munduko Bankua ari da administratzaile lanetan. Parisen ebatzi beharreko puntu garrantzitsuenetako bat izango da.

Akordioa loteslea izango da?

COP21en webguneak dio bileraren helburua dela klimari buruzko hitzarmen unibertsal eta loteslea lortzea, historian lehenbiziko aldiz. Zalantza gutxi dago gobernu guztiek –edo ia– sinatutako akordioen bat izango dela, gauden-gaudenean iritzi publikoak nekez onartuko lukeelako besterik, baina ikusteko dago loteslea izango den.

Alternatiben Herria: soluzioen erakusleioa

2013KO URRIAREN 6AN, IPCCk bere bosgarren txostenaren lehen zatia aurkeztu eta egun gutxira, estreinako Alternatiben Herria egin zen Baionan, Bizi! elkarteak antolatutarako. 12.000 lagunek hartu zuten parte, eta gerora izen berearekin sortu diren ehundik gora ekimenen abiapuntua izan zen. Euskal Herrian ez ezik, Alternatibak izan dira Frantziako Estatu osoan eta Europako beste zenbait lurraldetan ere.

Klima aldaketa larritasunezko auzia dela azpimarratzea da Bizi!-ren, eta oro har, han-hemen egiten diren Alternatiben xedea. Haatik, arazoaz baino, irtenbideez mintzatu nahi dute. Azken batean, Alternatiben Herri bat azoka bat da, beroketa efektuko gas isurketa gutxitzeko egin daitezkeen jardueren erakusleio bat. Hamaika arlotan daude alternatibak: laborantzan, eraikuntzan, energian, birziklapenean...

Bizi!-ren esanetan, honezkero 400.000 pertsona inguruk hartu dute parte Alternatiba markarenean egindako ekitaldietan. Kopuru gizen hori ekainetik irailera bitartean egindako Alternatiba Itzuliaren arrakastak azaltzen du hein handi batean. Parte hartzaileek bizikletara igo –kasu gehienetan, pertsona bat baino gehiagoko tandemetara– eta 5.000 kilometro egin zituzten Baiona eta Paris artean, abenduan Frantziako hiriburuan egingo den COP21 klimaren gailurrean benetako irtenbideak onar daitezela eskatzeko.

Urriaren 24an, Bilbon

Urriaren 10 eta 11n egin zen Euskal Herriko laugarren Alternatiben Herria, Donibane Garazin –aurrez, eta Baionakoaren ostean, Ziburun eta Donostian izan ziren–, 3.500 lagunengatik parte hartzeaz. Lekukoa Bilbok hartuko du urriaren 24an, Klima Aldaketaren aurkako Nazioarteko Egunean hain zuzen, Euskal Herriko Esku-



BIZI!



WWW.COTEBASQUE.NET

3.500 lagun bildu ziren urriaren 10 eta 11n Donibane Garaziko Alternatiben Herrian (goiko argazkian). Behean, ekainetik irailera egindako Alternatiba Itzuliaren irudia.

bideen Karta Sozialak antolatuta eta *Bizitza burujabea eskubide osoz* goiburuarrekin.

Aurreko Alternatiben olatua aprobeztatuz eta izen bera erabiliz antolatu arren, Bilbokoan klima aldaketa ez da izango ardatz nagusi bakarra. “Jendartea eraldatu beharra aldarrikatu nahi dugu”, esan digu Liz Quintana ekimenaren bozeramaileetako batek, “adabakien ordezkari errotiko irtenbideak jarri, eta ez klimaren arloan bakarrik”.

Bilboko Alternatiben Herriak bost auzo izango ditu, denak Alde Zaharrean edo haren inguruan

kokatuak, eta bakoitza arlo bati eskainia: natura; ekonomia soziala eta eraldatzailea; demokrazia eta burujabetza; hezkuntza eta kultura; eta bizitza duin eta askotarikoak.

Pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituen eredu soziala aldarrikatu nahi du Eskubide Sozialen Kartak. Quintanaren esanetan, “gutxiagorekin bizitzen ikasi beharko dugu beste irtenbiderik ez dugulako izango, baina kontua da gutxiagorekin bizitzea hobeto bizitzea dela, kontsumoan oinarritutako eredu honek ez gaitu-eta zoriontsuago egiten”.

Beroketa apaltzeko, jan okela gutxiago

BEROTEGI EFEKTUKO gasez (BEG) hitz egitean CO₂ izaten dugu gogoan, baina hori ez da eguratsera botatzen dugun bakarra. “Metano emisioek, adibidez, elikadurarekin dute zerikusia batez ere”, argitu digu BC3ko Ibon Galarragak. Zehazki, okela ekoizpenarekin. Atmosferara metanoa isurtzen duten “behi eta txerri gehiegi dago, beraz aldaketak ezarri beharko dira dietan”.

IPCCren txostenetan bezala, BC3ko ikerlerroetan ondo kontuan izaten da elikagaien ekoizpenak klima aldaketan duen eragina. Haragi eta esneki gutxiago kontsumitzeak, zenbait BEGen isurketak murrizteaz gain, mesede egingo liguke osasunaren aldetik. “Jakina, normalean jendeari ez zaio gustatzen inork esatea zer jan behar duen, baina politika egokiek halako aldaketak lor daitezke”, gaineratu du Galarragak.



BuBy-CC BY

Ibon Galarragak, esaterako, ez du hala uste: “Bakoitzaren zeregina jasoko duen dokumentu motaren bat adostuko da, eta hurrengo urteetan lan handia egin beharko da horren inguruan”. Nolanahi, baikor azaldu da BC3koa, uste baitu Parisen aurrerapauso esanguratsuak emateko osagaiak egon badaudela, besteak beste AEB eta Txinaren jarrera inoizko zabalena izatea.

Galarragak bezala, Parisen egosiko den hitzarmena loteslea izango ez dela pentsatzen du Txetx Etxeberri Bizi!-ko kideak, baina haren kasuan gailurrak eman dezakeenaz ezkor egoteko arrazoia da hori. “Kyoton ez bezala, orain estatu bakoitzak erabakiko du zein konpromiso hartu, eta gainera ez zaio zigorrik ezarriko betetzen ez duenari”, adierazi zuen Etxeberri irailean, Alternatiba Itzulia amaitzeaz zela *Gara* egunkariari emandako elkarrizketa batean.

COP21 porrota izango dela iragartzeko beste arrazoi batzuk ere azaldu zituen Bizi!-ko kideak: “Eztabaidagai nagusietako batzuk alboan utziko dituzte, hala nola energia fosilen ustiaketari dagokiona”. Etxeberri bere egiten du klima hondamena saiheste aldera erregai erreserben bi heren –batzuek diote %80– lurpean uzteko aldarrikapena.

Eskari horrekin bat dator, halaber, Ekologistak Martxaneko Javier Andaluz: “Klima aldaketaren erronkari behar bezala aurre egite-

ko, erregai fosilen kontsumoan oinarritutako eredu alboratu eta pertsonengan, hurbiltasunezko kontsumoan eta energia berriztagarrietan oinarritutako beste batera jo behar dugu”.

Bi graduko muga benetan da segurua?

COP21 ez da parametro horietan jokatu, bistan dena. Naomi Kleinek *This changes everything* (Honek dena aldatzen du) liburuan dio ez ditugula egin emisioak benetan murrizteko egin behar ziren gauzak, araurik gabeko kapitalismoarekin bateragarriak ez direlako. Bide batez, arrisku-mugatatzat 2 °C-ko beroketa aukeratu izana erabaki politikoztat jotzen du Quebecoko idazleak –eta ez da hala uste duen bakarra–, “ahalik eta pertsona gehien babestarekin baino, gaur egungo sistemari ahalik eta buruhauste ekonomiko gutxien sorraraztearekin du zerikusia”.

Ildo beretik doa talde ekologista gehienek munduko gobernuari egiten dieten eskaera: ahalegindu daitezela segurtasun langa 1,5 °C-ra jaisten. “1,5 °C? Dagoeneko ez dago hori lortzerik”, esan digu Ibon Galarragak, “eta 2 °C-ak ez gaingaitza ere ez da erraza izango”.

Kapitalismoa gaingaitzeko akuilu ezin hobea

Naomi Kleinek ondo egina du bere liburuaren izenbururako hautua. Haren tesia da klima aldaketa ez dela krisi soila, sistema sakonki eraldatzera behartzen gaituen mehatxua baizik. Bestela esanda, kapitalismoa gaingaitzera. Hala, mehatxua aukera bihurtzen da: gas isurketak nahitaez murriztu beharra mundu justuagoa lortzeko aitzakia ezin hobea da, Kleinen ustez.


Egoera larrian gaude klima aldaketaren aurkako borrokan alferrik galdu ditugulako bi hamarkada, dio Montrealeko idazleak, eta dagoeneko ez dago erdibiderik. Galdera da ea planeta hoztu ahal izango den merkatuen eta hazkunde ekonomikoaren logikaren barruan mantenduz. Batzuek baietz uste dute. “Orain arteko diseinuak huts egin du, baina merkatuak soluzioaren parte izan behar du merkatu ekonomia batean bizi garelako”, Ibon Galarragaren hitzetan.

Orain arte soluziotzat proposatu diren mekanismo guztiak egongo dira Parisko negoziazio mahaian. Soluzio faltsuak, sistema aldatu gura dutenen iritziz. Beste hamarkada baterako eskuak lotuta utziko gaituen akordio hutsal bat baino, batzuen ustez hobe litzateke COP21etik esku hutsik baina aukera guztiak zabalik ateratzea. Arazoa da ez dela egongo planak berregiteko beste hamarkadarik. Berandu gabiltza, eta hori IPCCk dio, ez ekologistek. Izan ere, Kyotokoa ordezkatuko duen akordioa indarrean jartzeko 2020ra itxarotea luzeegi itxarotea dela uste duenik ez da falta. Historiak epaituko gaitu. ■

Gure lurraldetik

KLIMA ALDAKETARI

aurre egiteko konpromisoa



JUANJO BARQUILLA

«Jendeari harrigarri zaio inon baino kafe edo te hobe hartzea Agurainen!»

Ardoa erosten dugunean, organo erreguladoreak mama gozoa elaboratu du halako moldez non guk ez baitugu ezer egin behar, botila ireki besterik. Teari dagokionez, geu gara organo erreguladorea: hiru gramo te, 150 cl ur bakoitzeko. Horiez gain, aldagai ditugu uraren tenperatura eta infusio denbora. Horra Juanjo Barquillaren lehenengo ikasgaia. Ez azkena, horratik!

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Tearen mundua engainuz betea dela esanez hasi zatzaizkit, hor zehar dabilen teak ez duela kalitaterik.

Te onak kolorea behar du, gustua, aroma, gorputza, intentsitatea, sakontasuna... eta hori te onek baino ez dute. Hor zehar dabilzan teek ez dituzte ezaugarri horiek guztiak orekaturik. Pentsatu ere ez! Kalitatean bertan, hiru puntu dituzu: ona, oso ona, eta bikaina. Ez dago te txarrik, gustu txarreko terik. Tea hartu eta ordu erdira edo berrogei minutura igarriko diozu haren kalitateari, tearen efektuak datozkizunean, haren antioxidanteak organismoan lanean hasten zaizkizunean; lasai, irribarrez hasten zarenean, erlaxatuta, baina, guztiarekin ere, hau eta hura egiteko gogoz. Horrek esan nahi du tearen propietateak egoki barneratu dituzula. Baina hori kalitatezko teek baino ez dute ematen.

Harrigarria!

Ez hain harrigarria ere! Hara, amak haurrari titia ematen diolarik, ama bera ongi elikaturik baldin badago, bularra emanez antigorputzak iraganaraziko dizkio haurrari. Teari dagokionez, berdin: ama-landarea baldin badugu, ongi kokatua baldin badago, gaitzik gabeko lurrean, ongi ureztatua, inausia, garbitua, intsektuetatik babestua... bada, landare hori guztiz ongi egongo da. Haren aihenak propietatez beterik egongo dira: kolorez, gustuz, aromaz...

Non da propietatez beteriko te hori? Agurainen, menturaz?

Hasteko, teak ph jakin bat behar du, azidotasun jakin bat, prezipitazioak, argi-ordu kopuru jakina, hezetasuna... Berotasuna, hezetasuna eta lur ona, horiexek dituzu te-landarearen egoera organolektiko perfektu baten oinarri. Horiexek ez, te ona izan genezake, baina te bikainik ez. Agurainen, diozu... Agurainen ezingo genuke gisako terik izan: ez dugu garaierarik –nahiz eta latitude itxuroso batean garen–, hotz handia, argi-ordu gutxi, gehiegizko ura... Dena dela, hor ere gorabeherak dira: Irunberriko Josenea elkartekoek, esaterako, tea ateratzea lortu dute, te ona. Hala ere, nekez lortu ahal izango dute te bikainik. European, esaterako, tea era naturalean inon haztekotan, Azoreetan baino ez genuke modurik izango. Gainerakoan, tropiko aldera behar duzu nahitaez: Asia, India...

Te bikainik ez gurean, te sommelier aitortua bai, Agurainen.

Profesionala izatea gustatzen zait. Egiten dudana egiten dudala ere, gauzak ongi egiten saiatu izan naiz beti. Kafearen munduan sartu naiz, koktelariarenean, gastronomiarenean, whiskiarenean... eta tearenean. Guztietan ere nire lana ongi egiten saiatu naiz. 28 urte daramatzat ostalaritzan, eta batean eta bestean ikasitakoa gaur egun baliagarri zait han eta hemen prestakuntza ikastaroak ema-



teko, nola te denda zabaldu nahi duen jendea-ri, hala *coffee & tea* dendak ireki nahi dituenari. Tearen industrietatik ere deitu izan naute prestakuntza ikastaroak zuzentzeko, baita kafe saltzaileek ere. Hortaz, nirea ez da, besterik gabe, te master-eskolak ematea, baita te kokteleria edo te hotzak egiten erakustea ere. Oso mundu dibertsoa du teak.

Agurainera etorririk, patataren historia espero-ko nuke, laborantzaren iraganaz eta orainaz mintzatzea, ez tearen gainean jardutea.

Askok galdetu izan didate: “Zer ari haiz hi Agurainen?”. Jakina, haiek Madril, Bartzelona, Londres... dituzte buruan, baina ni zorio-

NORTASUN AGIRIA

Juanjo Barquilla. (Gasteiz, 1970), aguraindarra, te sommelier ezagutua. Biziandia darama ostalaritzan (koktel, kafe, te...), eta bere lanean onena izaten saiatu izan da beti. Jakin-min handikoa, bidaiaria, abenturazalea... Pasio handiz bizi du lanbidea. Kaliforniako San Diegoko International Tea Master eskolan ikasketak egin eta Aguraingo kale nagusiko Jai Alai tabernan da harrezkero, kafe eta te bikainak eskainiz bezeroari. Hantxe du tearen bidezko zorionaren oinarritzko kanpamendua, askotariko konpromisoek (dastatze- eta prestakuntza-ikastaroak, mintegi eta tailerrak, txapelketak eta gainerakoak) denbora galarazten ez diotenean, bederen.

JUANJO BARQUILLA

naren bila nabil, ez ospearean, ez diruaren atzetik, eta hementxe naiz zoriontsu. Zorionaren bila nabil, tearen bidetik. Gustatu ere egiten zait tea, jakina. Gure tabernan, Jai Alain, te onak ebaluatzea dagokigunean, dastatu bat, eta esan izan dugu: “Heldu da tea!”. Te ona hartzen ari zarenean, heltzen da une bat non zoriontsu zauden, irribarretsu, eta hori te onek besterik ez dute.

Nola heldu zinen tearen mundura?

Bidaian bitartez. Beti izan naiz oso abenturazalea. Marokon egin nuen lehenengo kontak-tua tearekin. Marokok ikaragarri edaten du tea, nahiz eta profesionalki edo etikoki gaizki egiten duten tea, ura hiru aldiz irakiten baitute –eta hori ez da tearentzako ona–, azukrea ere pila botatzen diote –eta hori ez da osasungarria–, Vietnamgo tea errezibitzen dute –Afrikan ez dago pestizida kontrolik eta, beraz, zernahi tek du sarrera–. Hargatik erosi ohi da tea merke Marokon; merke, baina zeharo kutsatua. Marokora joan, inoren etxera sartu eta, lehenengo gauza, tea eskainiko dizute. Hango tabernetan ere, tea duzu freskagarri. Udan, te morunoa hartuko dizute –hots, te berdea, mendarekin–, gorputza hozten baituzu, ahoa irekiarazten... Neguan, aldiz, te berdea sibarekin, absentarekin, hartuko dizute, epelgarri baituzu. Erritual hutsa da Marokokoa: familian zaudelarik, gizonak prestatu ohi du tea; hura etxean ez baldin bada, andreak; eta, osterantzean, etxeko seme nagusiak. Horrela eratuta dago.

Maroko izan zenuen tearen leiho. Nora jo zenuen harrezkero?

Maroko eta gero, hamaika herrialde ibili ditut tearen arrastoan: Bielorrusia, Amsterdam, Alemania, Portugal, Brasil, Mexiko, Bahamak, Thailandia... Noranahi joanik ere, ostatu batean zein bestean nengoela, tea eskatzen nuen, tearen mundua gustatu zaidalako beti.

Gakoa

“Gakoa da te gramoak, ur gramoak, temperatura eta denbora, lau parametrok batera bildu eta infusio orekatua egitea. Behar baino denbora gehiago uzten badugu, gustu mingotsa izango du; hori berez ez da txarra, antioxidanteak eta kafeina baitira mingostasun horren eragile. Temperaturak muga jakin bat gainditzen badu, gatz mineralak azalduko zaizkigu, eta tea gazi izango duzu; ez du zertan te txarra izan, baina desorekatua da. Horregatik, behin eta berriz egin behar ditugu frogak: mingots dagoela? ‘Hurrengoan jaitsi egin behar dut temperatura!’, edo ‘Denbora gutxiago utzi behar dut infusioa egiten!’”.



Gainera, saltegiatar joan eta tea erosten nuen. Baina orduan ez nuen tearen gaineko jakituririk, eta poltsatxoetan erosten nuen. Harik eta konturatu nintzen arte. Halakoren batean, gehiago jakin nahi izan nuen, eta internetera jo nuen.

Hantxe informazio guztia.

Ez, bada! Atari guztietan ere informazio bera ageri zen. Kopiatua edo errepikatua, beti bat eta bera esaten zuten. Edo esaten zutena ez zen egia. Blokeatuta sentitu nintzen, eta AEBetara joatea erabaki nuen, Kaliforniara, te sommelier titulua ateratzeko espainolezko lehenengo master-eskolara. Astebete egin nuen han International Tea Master-en, eta zortzi hilabeteko ikastaldi trinkoa Espainian. 9,6 izan zen nire kalifikazioa, 10 zelarik notarik handiena.

Bejondeizula! Zergatik aukeratu zenuen tea?

Ostalaritzatik nator, ostalaritzara noa, harako hark esango lukeenez. 17 urte nituenetik ez dut besterik egin, eta noranahi noala ere, beti saiatu naiz nire arloaz ikasten. 19 urte nituela,



galdera egin neure buruari: “Zer izan nahi duk hik heure bizian? Zerbitzari, menturaz? Bada, zerbitzari izango bahaiz, onena izango haiz!”. Eta bidaia bat egiten nuenero, eta kafetegi batera sartzen nintzenoro, ona eta txarra ikusten saiatzen nintzen, biak, zeren eta txarretik ere eurrez ikasten baita; onetik bezainbat. Ostalaritzan egiten diren akats eta okerrak, esaterako –eta, egiatan, hamaika akats eta oker egiten da ostalaritzan–, ikasbide zaizkit: nire bezeroari okerrak ez transmititzen irakasten didate.

Kafea hartzeko ohitura askoz zabalduago dago, hala ere. Tea hobetsi zenuen zuk.

Hor ere badut oharra egin beharrik. Euskadiko barista txapelduna naiz, Espainiako hirugarrena. Ez larritu, barista hitzak “kafe munduan aditua” besterik ez du esan nahi. Kafearen munduan ere espezializatua naiz, alegia, aditua kafea elaboratzen, lantzen ari naizen kafearen jatorria ezagutzen, haren barietatea eta xigortze-puntua detektatzen... Bai, bai, kafe mundua ez zait arrotz. Txapelketara joan eta neure kafea defendatu ohi dut.

Bestalde, kafe dastatze txapelketetan ere parte hartu ohi dut. Azkena, aurten bertan, Madril-en, Espainiako txapelketan, eta seigarren izan nintzen. Arabako txapelduna izan nintzen, hirugarrena txapelketa vasco-navarroan, laugarrena Espainiakoan beste behin... Inoiz ere ez naiz lehenengoa izan, lehenengoetatik ikas-tea gustatu izan zait beti. Atzean zaudelarik, lehenengoa ikusteko egokieran zaude. Lehenengoa norbera bada, bestek ikusiko zaitu.

Azukrea

“Tea dastatu egin behar da, baina azukrerik gabe, teak azukrea baitu, berez. Azukreak, eztiak edo zeinahi gozagarrik tearen kalitate eskasa ezkutatu besterik ez du egiten. Inor ez da jatetxera sartu, eskatu, eta platerekoa dastatu gabe gatza botatzen hasten. Lehenengo dastatzea da, eta ondoren gozatzea, hala badagokio. Tearen edo kafearen kasuan, alderantziz egiten dugu: lehenengo azukrea botatzen diogu, ondoren esnea, eta azkenik edan! Gutxik hartzen du tea eta esaten: ‘Ez du azukrerik behar, dagoen-dagoenean hartuko dut’”.



Te sommeliertzat zauzkate, guztiaren gainetik. Baina ez nuke titulu hori nahi. Ez nuke nahi inork ni honetan edo hartan bakarrik ikustetik, horrek lan handia, esfortzu sekulakoa eta dedikazio demasa eskatzen dituelako. Taberna dut Agurainen, baina horixe besterik ez da: taberna. Esan nezakeen *delicatessen* taberna dela, gastrobar bat, *coffee-shop*, kokteldegia... baina bezeroak hori ikusi eta exijitu egingo luke: kafe ona, te ona edo dena delakoa nahiko lituzke. Nik berriz, taberna izen hutsaren pean, horixe emango diot, produktu bat oso ona, bezeroa harritzeko eran. Hainbat turista etorri ohi da Agurainera, gurera heldu eta “taberna” besterik ez du ikusten kanpoan, ez *coffee-shop*, ez te, ez gastrobar... Sartzen delarik, eta te aukera alimaleko hori ikusten duelarik, edo eskaintzen diogun teari urrup egiten diolarik... “Uau! Zer da hau!”, hots egiten du. Herri txiki batean –nola baita Agurain–, Madrilan edo Bartzelonan edo inon baino kafe edo te hobea hartzea, guztiz harri-garri zaio. Eta ondotik, ahoz ahoko komunikazioa hasten da, mezua lau kornetretara helitzen den arte: “Agurainen bada taberna bat non inoiz hartu dudan terik onena zerbitzatzuten baitute!”. Horrela egin dut nik bidea.

AZKEN HITZA

Bezeroa

“Zenbait te hain dira xamur, ezen nahikoa baita hari gatz pixka bat botatzea, hur xehea, zerbak, oliba-olio tanta batzuk, limoi zukua eta Idiazabal gazta, sekulako pintxo goxoa egiteko. Jarri hori zure bezeroari tearekin batera, eta irabazia duzu bezero hori betiko!”

Agurainera beharko dugu hemendik atzera! Orain artean supermerkatuan erosi izan dugu guk tea.

Osasuna izan nahi baduzu, lehenengo-lehenengo, bota ezazu te hori zaborrontzira. Ingura ezazu te bat ona. Inor ez doa dendara iazko tomateak erostera, ezta? Badira, hala ere, horrelako tomateak: izoztuak dituzte, eta tomate sasoia delarik, ateratzen dituzte eta salgai jartzen. Jakina, tomate hori ez dago heldua, eta ez du gusturik. Hiru hilabete da aguaembrujada.com weba ireki nuenetik eta, bertan, kalitate txikiko teak, kalitate ertainekoak, eta kalitate bikainekoak ditut salgai, jendeak, duen diruaren eta te kulturaren arabera, aukera dezan. Bada esaera bat, txinatarra: “Onak ezagutu aurretik, txarrak ezagutu behar dira”.

Ez dago gaizki esana.

Ez duzu etxean hoge te mota izan beharrik. Hiruzpalau izatea nahiko da. Animoaren arabera, te batera edo bestera joko duzu. Lasai zaudelarik, ez duzu kafeina dosi handiko terik hartzera joko: seguruenera, te zurira joko duzu. Aldiz, ekintza nahi duzularik, mugimendua, mendira joan, abentura... ezin hobea duzu te berdea, mineral eta antioxidante asko emango baitzikizu, kafeina eman ez batera erlaxatu ere egingo baitzaitu. ■

[f]arina

Urbina kalea, 5 · (Molinuevo Parkea) · Vitoria-Gasteiz ARABA
☎ 945 06 95 81 · info@farinarestaurante.com

Etxekoa,
ekologikoa...



AITOR ZABALGOGEAZKOA
MUGARIK GABEKO MEDIKUEN ORDEZKARIA TURKIAN

«Gobernuentzako aitzakia gara, baina guk tiritara jartzen dugu, ez gara konponbidea»

Siriako gatazka gertutik ezagutzen du Aitor Zabalgogea zkoa bilbotarrak. 2012tik han aritu da Mugarik Gabeko Medikuko kidea, baina segurtasun arrazoiengatik Turkiako ordezkaria da gaur egun. 2006tik 2012ra, erakundearen zuzendari nagusia izan zen Espainiako Estatuan. Nazioarteko laguntza ereduaz, politikaz, hedabideez... eta egiten duten lanaz jardun dugu.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

1971n sortu zen MGM, nazioarteko laguntzaren eraginkortasun falta gainditzeko. Oraindik ere gabezia hori nabari duzue instituzioen aldetik?

Instituzioen aldetik bakarrik ez, baita laguntza humanitariorako sisteman ere, horretan jarduten dugun erakundeak barne. Eta gatazken eta hondamendi naturalen dimentsioa eta konplexutasuna handitu baino ez da egin berrogei urteotan. Honek esan nahi du etengabe egokitu behar dugula, baina instituzioak eta nazioarteko laguntzarako erakundeak ez dira gai erretimo horri aurre egiteko. Siriako gatazka adibidez, teoriarik gerra zibil bat da, baina errealitatean, eskualdeko eta nazioarteko aktoreek dituzten esku-hartze guztiak aintzat hartuta, gutxienez eskualde mailako kategoria eman beharko genioke, hamabost herrialde baino gehiago daudelako gatazkan inplikaturik, eta Irak, Libano, Jordania edota Turkiari eragin dielako. Horrelako gatazka bat lehertzen eta enkistatzen utzi du nazioarteko komunitatearen eta eskualdeko botereen pasibotasunak.

Batetik nabarmendu beharko genuke halakoei aurre hartzeko gaitasun politiko eta diplomatiko eza; bestetik, egoera lehenbailehen konpontzeko esku-hartze politiko eta militararako gaitasun falta; eta azkenik, sistema eta ezintasun horretan guztian sarri galduta geratzen dela laguntza humanitarioa. Gerrei eta Genevako Hitzarmenei buruzko legeak berrikustea funtsezkoa da, eta erabakiak hartzeko beste modu bat adostu behar du Nazio Batuen Erakundeak, bestela proposatzen duen edozein ekintza sistematikoki blokeaturik geratzen da eta laguntzarako aukera baino ez du, ezin du soluzio politikorik aurrera atera. Finantza-



“Paradigmatikoa da: mugako 200.000 errefuxiatuak arazoa dira 400 milioi biztanleko Europar Batasunarentzat, baina 6 milioi errefuxiatu ez dira arazo izan 80 milioi biztanle dituzten Turkia, Jordania eta Libanorentzat”.

zio arazoa ere handia da: Nazio Batuetara doan kopurua herrialdeek erabakitzen dutenaren esku dago eta gatazka asko finantzaziorik gabe geratzen dira. Adibidez, duela hamar bat urte lurrikara izugarria izan zen Bam-en [Iran hegoaldean], direnak eta ez direnak agindu zituzten, eta gero nazioarteko komunitateak

“Erabakiak hartzeko beste modu bat adostu behar du Nazio Batuen Erakundeak, bestela proposatzen duen edozein ekintza sistematikoki blokeatuta geratzen da”

agindutakoaren %40 bete zuen, Iran zelako. Eta berdina azken hondamendi naturalen kasuan, Haitiko lurrikara adibidez.

Medikuntza independentea da zuen filosofia, ideologiarik gabea. Presio politiko, ekonomiko, militar eta erlijiosorik jasaten duzue?

Gu medikuntza humanitarioaz mintzo garen arren, interesak ez dituen medikuntzaz, gure definizioa politikoa ere bada, funtsean. Eta presioak bai, asko ditugu, batez ere gatazketan, non nazioarteko eskubide humanitarioak errespetatuaraztea etengabeko borroka den: medikuntza-misioen kontra ez dezatela erasorik egin, ospitaleen eta langileen kontra... Sendagaien ikerketa eta garapenerako funts ekonomikoak lortzea ere borroka handia da, batik bat gutxi garatutako zonaldeetan oso hilgarriak diren gaixotasunei begira.

Tokiko gobernuei aurre egin behar izaten diezue?

Leku asko eta askotan ez gara ongietorriak. Turkian lan egin ahal izateko baimena zortzi urteren ostean lortu dugu, Sirian lan egiten utz gaitzaten hamar urte daramatzagu hartu-emanen, eta toki ugariatik ostikoka bota gaituzte. Ez gaituzte gustuko, gu egoteak agerian uzten duelako arazo handi bat dagoela eta lekuko gobernua ez dela gai bertako problema sozial eta medikuei aurre egiteko.

Sorospena edo laguntza ematea batetik, lekuko egoera aldatzeko erremintak eskaintzea besteetik. Dikotomia horretan, non kokatzen zarete?

Sorospen eta laguntza praktika da gurea, nahiz eta argi dagoen askoz ere lan gutxiago izango genukeela garapenen laguntzara edo gatazken prebentziora bideratutako politika hobekak baleude. Beraz, aurretik ahalegin politiko, sozial eta ekonomikoan inbertitzea eraginkorragoa da, baina egia da baita ere ondorioak iristen direnean ezin dugula jendea hiltzen utzi.

Gobernuz Kanpoko Erakundeak aitzakia zarete gobernuek euren ardurei iskin egiteko?

Bai, aitzakia gara beti, sistemaren parte, baina guk tirita jartzen dugu, ez gara konponbidea, eta gizarteak hori ulertu behar du: laguntza humanitarioa da zartakoa hartzen duzunean jartzen dizuten ambulanzia, baina ambulanziaz ospitalerik gabe ez du ezertarako balio. Zartakoak gerta ez daitezzen nazioarteko era-

“Leku askotan ez gara ongietorriak, ostikoka bota gaituzte, gu egoteak agerian uzten duelako lekuko gobernua ez dela gai bertako arazo sozial eta medikuei aurre egiteko”

kundeez zenbat eta erabakimen handiagoa izan eta finantzazio handiagoa bideratu, hobe. Hiesa eragiten duen GIB birusari aurre egiteko Afrikan azken urteotan askoz gehiago inbertitu izan balitz, inpaktua ez zatekeen hain handia izango; Haitin garapen on batean indarra jarri izan balitz, lurrikarak ez zukeen hain ondorio lazgarriak utziko; atzerri politika egokiagoa egingo balitz Ekialde Ertai- nean, ziurrenik ez zatekeen gertatuko Libia, Irak edo Sirian jazotakoa...

Ezberdina al da errefuxiatuak artatzea, gerra dagoen herrialdean aritzea, goseteen nagusi den lurraldeetan jardutea, epidemiei aurre egitea...?

Egoera bakoitzak hurbiltasun eta erantzun ezberdina eskatzen du, baina nagusiki hiru errealitate bereizi ditzakegu: gerra guneetan, sartu eta bertan lan egin ahal izango dugula negoziatzea eta ziurtatzea da arazo nagusia. Afganistanen jasan berri dugun bonbardaketak [AEBetako tropek MGMren egoitza bonbardatu zuten urri hasieran] edo Siria, Somalia eta abarreko bahiketek erakusten dute, kirurgia edo trauma egiteko oso prestatuta egonagatik, lekuan lan egiteko ziurtasunik ez badugu ez garela eraginkorrak. Goseteetan, erronka handiena da eskura dauden aurrerapen mediku eta zientifiko guztiak egokitzea, baina askotan ez dugu erreminta nahikorik, eta sarri berriegiak dira, probatu gabe daude eta arazo etiko eta politikoak daude tartean. Eta hondamendi naturaletan eta biztanleen desplazamendu handietan, lehentasuna da ahulenak identifikatzea: urakanak edo desplazamenduak denei eragiten die, baina egoera horiei aurre egiteko jende prestatuagoa dago, aurrezkiak dituelako, sare familiarra... eta halakorik ez dutenak.

Zein arlo jorratzen dituzue?

Gaixotasun ahaztuetara ahalegin handia bideratzen dugu, baita lehen mailako osasun arreta prebentibora ere, eta beste arlo nagusia medikuntza espezializatua da: gerra-kirurgia, ebakuntza osteko zaintza... Laguntza psikologikoa ere eskaintzen dugu. Adibidez, Palestinan zaintza kirurgikoak nahiko ondo bideratuta dituzte bertako medikuek baina tratamendu psikologikoa ez, eta hor sartzen gara gu.

Ebolaren aurkako gurutzada famatu egin zen, Lehen Mundura iritsi zenean.

Lorpenak

“Gaixotasun kutsakor eta ahaztuak mapan jarri izana: ebola, malaria, leishmaniasia... Urte askotako lana izan da. Kolektibo moduan, jendeak ikustea gerretan ere legeak daudela, errespetatu beharreko arauak. Eta pertsonalki, azkena nabarmentzearren, Sirian egindako lana, ahal izan dugun guztia egin baitugu, oso inguru zail eta biolentoan”.



“Ebolak erakutsi zuen osasun sistemek funtzionatzen ez duten lekuetan mota horretako epidemiak krisi humanitario bilakatu daitezkeela”, dio Zabalgoeazkoak. Mugarik Gabeko Medikuek 2.500 langile baino gehiago dituzte munduan barna, lekuan lekuko 30.000 profesionalekin batera aritzen direnak.

Ebolak erakutsi zuen osasun sistemek funtzionatzen ez duten lekuetan mota horretako epidemiak krisi humanitario bilakatzeko aukera oso handia dela eta globalizazioaren ondorioz, mundu mailako inpaktua izateko probabilitatea ere altua dela. Halakoetan, herrialdean bertan laguntzea ezinbestekoa da, epidemia global bilakatu ez dadin.

Orain ere, Europara iritsi nahi dutelako akordatu gara errefuxiatuez hedabideok.

Hiru urte daramatzat Siria eta Turkia artean eta bazetorrela ikusten genuen. Turkian bi milioi eta erdi errefuxiatu eta Libanon beste milioi eta erdi daudela ikusten duzunean, konturatzen zara zerbait gertatzen ari dela. Jendeak pentsatzen zuen azken bi urteotan egoera konponduko zela eta bake akordioa sinatuko zutela, baina gero eta garbiago dago gatazka siriarraren eta hedaturaz gatazka irakiarraren irtenbiderik ez dela egongo epe motzera. Horregatik, jendeak erabakiak hartu behar izan ditu, hainbatek bizitza guztirako: hasieran etxetik gertu geratu dira, bueltatzeko esperantzan, baina konturatu dira ez duela merezi itxaroten jarraitzea. Ekialde Ertaineko gatazken batez besteko iraupena kontuan hartuta (Libanokoak 15 urte iraun zituen, Irakekoak 12 daramatza...), ez dirudi Siriakoa bihar bukatuko denik.

Fokua hor jarri dugun arren, beste leku batzuetan kronikoa da larrialdi egoera...

Leku batzuetan zulotik ezin atera daramatzate urteak eta urteak. Nik 30 urte daramatzat

honetan lanean eta berdin jarraitzen dute Afganistanen, Somalian, Afrika erdialde guztian (Mali, Niger, Afrika Erdiko Errepublikak...).

Eta horretan guztian zein ardura etiko eta legal dugu Lehen Munduko herritarrok?

Nazio Batuak bezalako nazioarteko sistemen eraginkortasun faltan ardura dute gobernuek. Maila pertsonal eta komunitarioan, bizilagunari gertatzen zaionak ez arduratzea, jarrera insolidarioa izateaz gain, ez da jarrera inteligentea, era batera edo bestera ordaintzen bukatuko duzulako zuk ere.

“Bizilagunari gertatzen zaionak ez arduratzea, jarrera insolidarioa izateaz gain, ez da inteligentea, era batera edo bestera ordaintzen bukatuko duzulako”

Bizi garen munduan, dena dago dirudiena baino gertuago, eta ikuspegi egoista batetik begirata ere, bestelako gizarte eta komunitateak eraikitzearen alde egin behar genuke.

Horrorearen aurrean anestesiata gaude? Zuek nola daramazue egunerokoa?

Umore beltz askorekin, zer erremedio. Eta gure artean babes handia emanez. Gaizki pasatzen dugu, baina ez dugu oso gustuko esperientzia pertsonalez aritzea, Alepoko bombardaketa batean hondakinetatik 10 urteko ume bat ateratzen ari zarenean inportantea ez da erreskatatzailea, erreskatatua baizik.

Eta anestesiata diozu... Hedabide batzuek kolpeka funtzionatzen dute. Paradigmatikoa da: muga pilatu diren 200.000 errefuxiatuak arazoa dira 400 milioi biztanleko Europar Batasunarentzat, baina 6 milioi errefuxiatu ez dira arazo izan 80 milioi biztanle inguru dituzten Turkia, Jordania eta Libanorentzat. ■



INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Kataluniako etorkizunari begira

KATALUNIako HAUTESKUNDEAK plebiszi-tarioak izan dira. Datu guztiak garbi utzi dute. Galderari erantzun argia eman zieten hautagaitzek lortu zituzten emaitza hobere-nak, partaidetza inoiz Katalunian egon den bigarren altuena izan da eta interpre-tazio gehienak, alderdien artean eta nazio-arteko hedabideen artean, plebiszitu bati dagozkion motakoak izan dira.

Lehenengo aldiz historian Kataluniak bere estatus politikoari buruz erabakitze-ko eskubidea egikaritu du. Herrialde batek pauso hori ematen duenean, ez dago atze-za bueltarik, eta hori jatorrizko estatuak badaki, horregatik zuhurra bada eskubide hori erregulatu egiten du. Beraz, norbaitek irabazi baditu irailaren 27ko hauteskun-deak, hori katalan herria izan da. Etxean eta nazioartean aditzera eman dute *demos* soberano bat dagoela Katalunian.

Etorkizunari begira, lehenengo erronka abenduko Espainiako hauteskundeak izango dira. Katalunian bigarren itzuli papera bete dezakete. Unionismoak emaitza onak lortzen baditu eragingo dio sezesio prozesuari. Antzera gerta daiteke Espainia mailako emaitzekin, zeresan handia emango dute Bartzelonan

Beste kontu bat da independentzia. Aldekoek emaitza oso onak izan dituzte, baina ez dira nahikoak azken geltokira iris-teko. Botoetan oinarrituriko aldebakarre-ko sezesio aldarrikapenak sostengatu dire-nean, gutxienez, parlamentuan edota erreferendumean bi hereneko gehiengo-arekin egin dute. Beraz, Kataluniako %47,74a ez da nahikoa independentzia gauzatzeko, bai ordea sezesio prozesuare-kin aurrera jarraitzeko Parlamentuko dipu-tatuen gehiengo osoa independentista izango delako.

Etorkizunari begira, lehenengo erronka abenduko Espainiako hauteskundeak izango dira. Katalunian bigarren itzuli papera bete dezakete. Unionismoak emaitza onak lortzen baditu eragingo dio seze-sio prozesuari. Antzera gerta daiteke

Espainia mailako emaitzekin, zeresan han-dia emango dute Bartzelonan. Hauen ara-bera, 2016 eta 2017rako hiru eskenatoki aurreikusi daitezke:

1) Madrilek abenduko hauteskunde-entean aldebakarreko dinamika hausten du prozesua bere legalitatearen baitan egokitze-ko. Erreforma konstituzional serio bati ekiten dio eta Kataluniari propo-samen erakargarri bat egiten, estatus berri bat proposatuz eta bere sezesiorako eraba-kitze eskubidea onartuz Kanadako argita-sun legearen ildotik.

2) Gobernu independentista berriak aldebakarreko estrategian sakonduz Estatu katalana eraikitzen joan ahala, hirugar-ren bidearen defendatzaile diren horiek posizioa hartzera derrigortuko ditu, batez ere, Espainiatik inolako proposamen serio-rik etortzen ez bada. Ondorioz, hirugarren bideko boto-emaitzek eta politikariek independentismora lotzeko pizgarri asko izango dituzte. Uneren batean Kata-luniako Legebiltzarrean aldebakarreko independentzia aldarrikapena botatzen bada, litekeena da oraingo 72 diputatuen gehiengo baina zabalago batek ematea sostengua. Une horretatik aurrera, hautes-kunde konstituziogileen edota sezesio erreferendumaren uea iritsiko da Katalu-niako legalitatearen baitan.

3) Bigarren agertokian, independen-tzian bukatu aurretik, Espainiak, desespe-ratua eta kanpo presio pean, Estatu kata-lan berriarekin konfederazio akordio bat (izen desberdinak hartu ditzake) sinatu dezake eta autodeterminaziorako eskubi-dea aitortuko lioke (seguruena urte batzuetako kadentziarekin, hau da, hiru, lau edo X urtetan ez erabiltzeko konpro-misoarekin).

Abenduko hauteskundeetan ez dirudi Espainiak bere itsukeria albo batera utziko duenik, baina katalanek gauzak txukun egiten jarraitzen badute, Mendebaldeak derrigortu egingo du Espainia hirugarren agertokia negoziatzera. Europar Batasu-nak eta NATOk barne sezesio bat onartu behar badute, era pausatuan, kontrolatuan eta ordenatuan egitea lehenetsiko dute, aldaketa drastikoak saihestuz. ■





DANI BLANCO

Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦

Azal apain

BASERRIKO LANETAN inoiz aritu izan garenok maiz entzun izan dugu, gure eskualdean behintzat, azal-apain hitza, azalekoa jorratu edo apaindu esanahiarekin. Gehienetan, ordea, sakonago landu beharreko alorra, azala apaindu eta ondo landutakoaren itxurak eginda utzi dutela salatzeke, esanahiarekin erabili ohi zen.

Orain ugaltzen ari dira gisa hone-tako jardunak eta psikologo bat etxean sarrarazten dugu geure nerabeek, umeek eta baita haurrek ere, burutik behera kaka egiten digutenean eta egoera bideratzeko gaitasunik ez dugunean. *Personal Trainer* bat behar dugu geure osasuna eta elikadura zaintzeko nahiz kirola nola egin orientatzeko; irudia zaindu nahi badugu ere ez dago *Personal Shopper* baten laguntza kontratatu besterik eta bera izango dugu itsu-aurreko arropa erosterakoan, geure burua edo etxea apaintzerakoan... eta *Personal Shopper* teknologikoa, gero eta gehiago beharko duguna segapoto, iPhone, iPod, txartel festa... eta auskalo zenbat teknologia, guretzat ezezagun eta ikastezinezko, taxuz erabil ahal izateko. Antzeko izenduna, orain-arte dirudunen eskura baino ez zegoena, txoferra eta batzuentzat *txoperra*, autoa gidatzeaz gain hainbat aholku eman ere egingo zuena, seguru asko!

Alde batetik, independentzia lortu nahian gabiltza eta bestetik, gero eta besteren mendekoago ez al gara? Aipatu bitartekari horiek denak behar al ditugu geure buruaren jabe izateko?

Alde batetik, independentzia lortu nahian gabiltza eta bestetik, gero eta besteren mendekoago ez al gara? Gorago aipatu bitartekari horiek denak behar al ditugu geure buruaren jabe izateko? Ala, burujabe izan ez gaitzen sortutako, itxura batean beharrezko diren alferrikako eranskinak ditugu? Zertarako? Ondo pentsatuz gero, gaizki egiteko. Itxurakeria hutsak bete gaitzan!

Zertarako baino, behar ditugulako ala beharra sortzeko? Denbora izan arren, geuk behar ditugun gauzak ikasteko astirik ez dugulako hartzen? Zertarako hainbeste karrera, gradu eta titulu, sena galtzen ari bagara? Zertarako hainbeste lagun, denbora gehiena bakardade isilean okupatuta bagaude? Hainbeste etxe handi gero eta familia tikiagoentzat? Hainbeste teleaio komiko irriño bat argazkia ateratzeko soilik egiten badugu?

Bejon diezagula! Teknologian zenbat eta aurrerakoiago garen, orduan eta atzerakoiago gara harremanetan. Zenbat eta aholkulari gehiago inguruan orduan eta geu izatetik urrunago. Bizitza luzaroan irautea dela sinetsita bizia oharkabea doakigu. Inguruan (gauza, aholkulari...) asko izateak, geu (irudimena, sormena...) gutxi izatea dakar. ■

EIDER MADINA



Oihana Etxebarrieta



KAZETARIA

Badugu alternatiba

BERRI TXARRAK taldeak *Iraultza txikien asanblada* abestian “Noren kontra zauden baino gehiago, zer egiteko prest” zauden galdegiten digu. Bide horretan hainbat urrats sumatu ditut azken denbora honetan. Adibidez, Argia Egunean *Txikitik eragiten* ari garenon harrotasuna eta elkartasuna ospatu genuen, Alternatiben herrian, berriz, “Bizitza duinak eta anitzak” aldarrikapenen erdigunean kokatu dira. Mugimendu, elkarte, egun guztietan eraikitzeke, sistemari hortzak erakutsi eta gure eredu propio eta jasagarria sortzeko grina ikusi dut, baita egikaritzen ari diren

proiektuen saretzeak, jakintza elkartrukeak...

Eta txikitasunaren elkartruke horretan, gauza handiak aurkitu ditut. Ikusi ditut urte guztian zehar elikagai ekologiko eta bertakoak jaten dituzten pertsonak, harreman heterosexistetatik at bizi direnak, zaintza kolektibizatu eta duintzen dutenak, elkarlanean aritzen diren kooperatibak, baita telefono eta elektrizitate merkatu etikoan kontsumitzen dituzten pertsonak ere. Azken finean, gizartea eraldatzen ari diren pertsonak eta proiektuak ikusi ditut, eta horrek ez du atzera bueltarik. ■



Jesús Mari González Martínez

◆ BASERRITARRA

Jarrera kritikoa

TEKNOLOGIA BERRIEK gure munduan arrakasta handia dute, baina kezka sortzen duena, batez ere, interneteko gehiegizko erabilera da haur eta gazteen artean, herri aurreratuenetan umeen %99k egunero darabil. Adituak ez dira ados jartzen ea erabilera mota horrek menpekotasuna sortzen duen; ikerketa serioak falta direla diote. Baina, nork egin behar du ikerketa? Sektoreko enpresek? Gobernuek? Nolanahi ere, erabileraren inguruko gogoeta bultzatu behar da, eta nerabeen jarrera kritiko eza konpontzeko “hezkuntza sistema behar dugu” esaten dute. Mirariak eskatu, negozioekin jarraitzeko.

Gosetik, gudatik eta miseriatik ihes egin duten populazio mugimendu ikaragarriak ikusten ari gara azkenaldi honetan. Arazoa handitzen dela ikusita harrera-kuotez hitz egiten dute Europar Batasuneko estatu kideek; baina inoiz ez dut entzun benetako kritikarik gertatzen diren migrazio horiei buruz,

Gure baserrian ekoiztutako fruituez egindako marmeladak saltzen ari ginela, Alemaniako azoka ekologiko batean gure produktuak merkaturatzeko interesa zeukan banatzaile batek azaldu zigun haien lan egiteko modua: mugatutako zonalde batean hainbat publizitate egiten zuten “beharra” sortu arte

ezta arazoaren azterketa egin nahi dutenik ere, beharbada, gure mendebaldeko bizimodua zalan-tzan jarriko lukeelako.

Greziako zorraren gestioak, berriz ere, erakusten du gure gizartean jarrera kritikoa falta dela. Errua greziarra da, entzuten genuen, zergatik konpondu behar dugu denon artean haiek gaizki egindakoa? Hala ere, guztiok nozitzen ditugu energia fosilen gehiegizko erabilerak sortutako kutsadura eta klima aldaketa. Garapen bideko herriek ez dute parte hartu kontsumismo horretan, baina, guk bezainbeste pairatzen dituzte ondorioak. Halaber, petrolio eta gure kapitalismoaren oinarriko beste lehengaiak, munduko gatazka gehien erdigunean daude.

Gure baserrian ekoiztutako fruituez egindako marmeladak saltzen ari ginela, Alemaniako azoka ekologiko batean gure produktuak merkaturatzeko interesa zeukan banatzaile batek azaldu zigun haien lan egiteko modua: mugatutako zonalde batean hainbat publizitate egiten zuten “beharra” sortu arte. Orduan soilik jartzen zuten produktua salgai. Marketin izeneko teknika, gura eta premia nahasiz negozioa egiteko, eta balio du edozer saltzeko (janaria, ordenagailuak, smartphoneak, kultura, eta abar), baita helburu politikoak lortzeko ere.

Gizarte osoak –ez bakarrik nerabeek– zentzu kritiko zorrotza sustatu beharko luke gure ekintzak aztertzeko, zer den beharra eta zer marketin ongi bereizteko. Haurrek eta gazteek balore horiek bereganatuko dituzte beren inguruan zentzu kritikoa lantzen dela ikusten badute, bestela alferrik. Itxurakeria gainditu behar dugu. ■



**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015**



www.bertsotzale.eus

URRETXU-ZUMARRAGA	Urriak 24	ERRETERIA	Urriak 25
Ederrena pilotalekua, 17:30		Fanderiako pilotalekua, 17:30	
<p>Agín Laburu Rezola</p> <p>Asier Azpíroz Iztueta</p> <p>Beñat Iguaran Amondarain</p> <p>Elixabet Pagola Apezetxea</p> <p>Jexux Mari Irazu Muñoa</p> <p>Nerea Elustondo Plazaola</p>		<p>Amaia Iturriotz Etxaniz</p> <p>Ane Labaka Mayo</p> <p>Beñat Gaztelumendi Arandia</p> <p>Iñaki Gurrutxaga Zubimendi</p> <p>Iñigo Mantzizidor Larrañaga</p> <p>Jon Martín Etxebeste</p>	
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatlan.			
Final laurdenak		Laguntzailea: 	



DANI BLANCO

Pablo Sastrearen artikuluari erantzuna

URRIAREN 21EKO ARGIAN (1748 zenbakian), *Gizona ez da emakume biltzen* artikuluan, idazleak azpimarratzen zuen sexuak soilik bi direla, “Arrak eta emeak: geure portamenari buruz aurre-disponitzen gaituztenak; (...) Interesantea da sexua eta generoa bereiztea. Generoak matizatu, finkatu, areagotu, gozatu egiten du sexu-diferentzia”. Jarraian, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak zerrendatu zituen, ongi ulertu badut, emakumeak gizonen diferente izatea aldarrikatuz: “Emakumeen begirada *diferenteak* behar ditugu –batez ere, gizonok–”.

Gizon eta emakumeon artean –beraz, sexua soilik izanik aldagaia– dauden ezberdintasunen zerrendak egiten hasten garenetan –oso kirol gustukoa kafetegi, taberna eta elkarte gastronomikoetan–, etengabe galdera bat ernetzen zait. Zer onik ekartzen digu balizko “sexu portamen aurre-disponitu”, edo Jainkoaren antz susmagarria hartzen diodan esentzia horretan sinesteak? Adibide ausart xamarrek jarri ditu Sastrek, baina hala ere, nor daki benetan portaera jakin bat –artikuluan aipatzen dira, besteak beste, panpinekin edo armekin jolastea, bide-peoitza lanak egitea edo kartzelara eraman duen hura– juxtu zakilak edo aluak eragindakoa den? Horretan sinesten duzu edo ez, aldeko adina aurkako ikerketa egongo dira. Baina batez ere: zertara garamatza baietz, hala dela pentsatzeak? Itxuraz ebidente den zerbait konstatatzeraz? Akta hartzera? Eta horrek zer ondorio ditu esentziak “aurre-disponitu” dion portamen hori jarraitzen ez dituen gizon eta emakumeen artean? Zure adibideetara itzulita, neskek panpinetarako duten joera ustez “naturala” bada, zer da neska batek armekin jolaste-ko joera izatea? Zer sentituko genuke neska horrekin inguruko pertsonak? Utziko genioke bakean bere jolasak aukeratzen? Esentziarekiko sinismen horrekin zer lortzen dugu, gizarte osoak gure portamenak hautatzeko askatasuna izatea ala “berdintasun” (sexu bereko besteekiko) eta “diferentzia” (beste sexuarekiko) eredu alienatzaileena indar osoz inposatzea?

Diferentzia aldarrikatzen du feminismoaren zati handi batek, diferentzia eskatzen esentziez dihardutenek... Nola ulertzen dugu diferentzia edo aniztasuna? Feminismoak beldur dion eta esentzialismoak aldarrikatzen duen natura horren oinarritzko arauetako bat da, hain juxtu, bizitza ziurtatzeko, izaki diferenteak egitea (ez klonak). Baina diferente, izaki

bakoitza. Gizonen ezaugarriak zerrendatzeaz eta emakumeen ezaugarriekiko ze diferente diren behin eta berriz errepikatzeaz arduratzen diren horiek, aldagai bakarreen (hankartea) jartzen dute marra gorria. Eurek aldarrikatzen duten naturak, aldiz, marra gorria izaki bakoitzaren bueltan jartzen du, eta mila eta bat aldagaien arteko konbinaketak egiten. Zintzoki begiratzen baditugu pertsonak, ohartuko ginateke araua baino salbuespen gehiago daudela. Naturaren araua, juxtu arau-haustea aurreprogramatzea dela. Badaezpada, datorrena datorrela, izaki gisa bizirik irten gaitezen. Eskerrak eman behar dizkiegula, alegia, “portamen aurre-disponitua” jarraitzen ez dutenei, bost axola portamen hori sexuak edo gizarteak aurre-disponitua den. Denoi zabaltzen digutelako beste portamen bat izateko aukera, eta espezie gisa bizirauteko araua, arau-haustea delako.

SASTREAREN ADIBIDE BAKARRARI ERANTZUNA: Adibide bakoitzak sorraraz dezake iritzi artikulua bat –eztabaida sustatzea ez da ekarpen makala–, nik honakoaren aurrean ezin eutsi: “Ekibokatua egonen naiz baina, emakume baten ipurdiari jarraitzen dion gizon-begiradaren atzean (barrabil, prostata, zakil) sexu-aparatu bat ikusten dut nik, eta, emakumearen edo agertu nahiaren atzean, umetoki bat ikusten dut”. Esaldia egina dagoen eran, irakurleon buruak jolasten du “emakumearen edo agertu nahiaren atzean” omen dagoena asmatzera. Esaldi horretan bertan gizonen portamenari lotuta sexu-aparatu bat (bere barrabil, prostata eta zakilarekin) ikusi dugunez gure irudimenean, emakumeen adibidearen txanda etorri denean, irakurle honen irudimenak ezin izan dio emakumeen sexu-aparatu osoa irudikatzeari. Eta kar, kar, kar, “umetokia” horrek kolpez hoztu dit gogo. Emakumeok umetokiak bultzatuta jarduten dugula? Gure bizitzan batzuek 0 bider, beste batzuek behin, beste batzuek bi aldiz, hiru, lau... Aldiz, pottorberoak gara bizitza osoan –horri buruzko ikerketak badira, eta errazago dena, galdetu inguruko emakumeoi–, beraz, edo agertu nahi nabarmena emakumeen sexu-aparatuarekin parekatu behar bada, aipatu ez dituzun sexu atalen batekin lotuagoa egongo da. Eta bai, noski, pottorberook ere jarraitzen ditugu begiradarekin besteen ipurdiak. ■

“URA IXURIRIK” ERESIA

Gizonezkoek taldean obratuko dute andere oreinaren ehiza

Sortaldeko Europa osoan aurkitzen dira eresiaren bertsio ezberdinak. Horrek frogatzen ote du sinboloak eta genero bortxakeriak inkontzienteetan sustraituak direla, hizkuntz aniztasunaren gain-gainetik? Honek egiten du abesti hau hain uhergarria.

| ITXARO BORDA |

IRUDIA: AINARA AZPIAZU “AXPI”

HAIZEA TALDEAK 1978AN plazaratu album oroigarri hartako kanten artean *Ura ixuririk* izenekoak buklean entzuten genuen, orduko K7 heroikoen zintak higatzeraino. Amaia Zubiriaren ahotsak zorutzen gintuen eta abestiaren hitzek zinez harritzen: gauez neska zena, egunaz oreina bilakatzen zen... Transformista jaidurarekiko kide guztien antzera, Maddiren destinoa hondarrean tragikoa zen.

Kantaren hitzak Piarres Lafittek bildu zituen emazte informatzaile batengandik. Ez zigun haren izenik eman. Are gutxiago, mende erdiaz iparraldeko kultura alorraren giderrak fermuki atxiki zituenak ez zuen nehon kontatu eresia handios hau nola aurkitu zuen. 1965eko *Gure Herria* hilabetekariaren 37. zenbakiaren 116-117 orrialdeetan agertu arazi *Atlantika-Pirene-etako sinbeste zabarrak* deituriko bere artikuluan aipatu zuen Uztartizeko eruditua.

Txomin Artolaren musika-kideek melodia berri batez apaindu zuten, urte bat aurrerago Frantziako Malicorne ospetsuak jada ezagutu arazi zuen zatiari biziki hurbil. Antzekotasuna ukigarria suertatzen da, kasik lau hamarkada geroago, Amaia Zubiriaren eta Marie Yacouben bozen artekoa barne. Ez dut ahanztekoa alabaina, 1989an, Benito Lertxundik *Pazko Gauerdi Ondua* diskoan eskaini zion interpretazio tirana, soinuaz kontakizunaren tentsioa eta misterioak azpimarratuz.

Besteak beste, Txomin Peillen, Jon Juaristi, Koldo Biguri, Luis Mari Mujika ala Patri Urkizu altxor horren muina ikertzeari uztartu zitzaizkion, bakoitzak berea ekarriz, kantaren nondik norakoak argitzen zizkigutela. Agerpenak oro interesgarriak dira eta denak bat datoz errateko abestia ez dela baitezpada euskal jatorrikoa, frantsesez, galegoz, hungariarrez edo gaztelaraz ere aurkitzen dela,

ArteDramak aurkezten du
HUTS TEATROA

ETXEKOAK

AZAROA, 2015

- 1 Luhuso
- 4 Gasteiz (Principal)
- 6 Azpeitia
- 7 Larresoro
- 11 Iruñea (NAE-ENT)
- 13 Zumaia
- 18 Bilbo (Arriaga)

20 Leioa

- 22 Durango
- 26 Donostia (Gazteszena)
- 27 Donostia (Gazteszena)
- 28 Donostia (Gazteszena)
- 29 Donostia (Gazteszena)

ABENDUA, 2015

- 5 Hazparne
- 11 Elorrio
- 12 Berriz
- 13 Markina-Xemein



www.etxeoak.eus
info@artedrama.com

ERDIKO KAIERA • "URA IXURIRIK" ERESIA

abantzu hitzez hitz, protagonisten izenak aldatuz, andere-oreinak beti gaizki bukatzen duela: Britainia eta Normandia eskualdeetan famatu *La Blanche Biche* erromantzean halaber tupinan burbuilaz dago Margueriten bihotza...

Bitxia da hala ere, hemeretzigarren mendean, Sallaberri, Azkue edo beste biltzaile amorratuek abesti honen aztarnarik ez aurkitzea, Lafittek publikatu aitzin. Baliteke itzulpen berantiarrekoa dela: aspalditik dator inguratzen gaituzten kultura anitzetako kantak euskarara ekartzeko ohitura, itzuliz ala egokituz, hitzak ala melodiak.

Gertakarien haria bilbatzen dugu jadanik: Maddik gauak eta egunak sorgintzen dituela dirudi, sineste animistak eta fede kristaua gurutzatuz Pazko Arratsean, ur menturaz benedikatua isurtzen dela, emaztea orein bilakatzea bideratzeko. Izerdia imajinatzen dugu bere abere larruan perlatzen, hats hartze trinkoak, oihan ilunean, zakurrak gibeletik zaunkaz dituela. Irudia indartsua da eta izpirituak gatibatzen ditu.

*Ura ixuririk sorginen bidean
Dobaina bildu dut Bazko arratsean
Gauaz Mayi nuzu, egunaz oreina
Etxeko zakurrek xerkatzen nutena.*

Familia eredu baten lekuko dator *Ura ixuririk* kanta. Ama, Jakes semea, eta Maddi alaba eta arreba dira pertsonaia nagusiak. Lehen koplari, neskakak bere burua aurkezten baldin badu, bigarrenetik hara, ama-semeen solasaldia garatzen doa. Bien artean halako konplizitate bat nabaritzen da, sorginduriko andereñoa beraien kontrolatik kanpo oreinez aldatzen jolasten bailitzan, lanjerraren mugetan. Jakesek orak askatu ditu, amaren arrangura harrotuz:

*– Jakes nun tuk orak ez tiat senditzen ?
– Oihanpean kurri, oreina xerkatzen...
– Jakes deit zakurrak, salbazak arreba!
– Ama nola sinets Mayi daitekela...*

Zakurrek ez dute huts egiten: oreina harripatu eta ausikika hil dute. Jakes, ez da oharitzen, ezin du asmatu, oreina Maddi dela, lana *kanitaz* edo labanaz bukatzen du: abere zenuari erraiak idokitzen dizkio eta haragia pusketan ematen du, kozinatu eta jateko prest. Bere arrebarengan pentsatzen du amultsuki, ehiza apailatuz plazer eginen diolakoaz ziur.

*Jakes zakurrei basi da xistuka ;
Oreina hil dute kolpez hausikika.
Jakesek kanitaz eman du pusketan :
– Aseko abal da Mayi gurekilan.*

Azkeneko bertsoak istorio doloretsoaren mamia agerian uzten du. Abeslariaren eta entzuleen gogoetan, denbora ahantzietatik datorren kanibalismoarekiko horrore zaharra bermatzen da. Jakesi mintzo zaio Maddi, nahiz eta tupina bere haragi egosiaz mukuru egon. Azken bi lerroetan aldiz, amak bere burua nola hiltzen duen azaltzen da: puñala bihotzean sartzen du, ohartzen delarik alaba galdu duela.

*– Afal, afal, Jakes ni nuk hor lebena
Ene haragiaz beterik dupina!
Ama sala zolan nigarra begian,
Puñala sartu du bere bihotzean.*

Erroak, zeltiar munduan dituen frantsezko *La Biche Blanche* kanta anitzez luzeagoa da. Honetan, has-tapenean, ama



eta alaba biak oihanean paseatzen dira. Alabak salatzen dio, euskarazko bertsoan ez bezala, egunaz neska izanik gauez oreina dela eta guztiak atzetik dauzkala, baroiak, printzea eta denetan arrabiatuena Renaud bere anaia propioa. Oreinaren hilotzak, ile horiak eta emakume bularrak dituela seinalatzen du bertsoak. Margueritek xuxurlatzen duen hondar koplak ez ditu xehetasun morbidoak eskas, aditzaile prestuen zoramenerako agian. Hona, dasta, oinarrizko hizkuntzan:

*Vous n'avez qu'à manger
Suis la première assise
Ma tête est dans le plat
Et mon coeur aux chevilles
Mon sang est répandu
Par toute la cuisine
Et sur vos noirs charbons
Mes pauvres os y grillent.*

Zehaztasun kurruskarien aldetik, aitortuko dugu, euskara askoz ere diskretuagoa delagurean, beti ere, labur eta on hobe.

Troiako gerraren bezperan, zorte ona eskuratzeko, Agamemnon ankerrak bere alaba sakrifiziara eraman zuenean, Artemisa jainkoak Ifigenia oreinez aldatu zuen: metamorfosiak, Maddi gaizoaren kontrala, bizitza salbatu zion behingoz. Esoporen fabuletatik hasi eta Marie Darrieussecq-en *Abardikeriak* nobelaraino, aberetzen diren jende itxuraldaketak ugariak dira. Baina menturaz *Ura ixuririk* olerkiak badu izpirituak subliminalki urratzen dizkigun beste zerbait.

Oreina, lurrean eta airean dabilelako askatasunaren, gartzetasunaren, garbitasunaren eta haurtasunaren inozentziaren sinbolo sexuala da, feminitate arinarena eta larruz larru, oihañez oihan, zuhaitz handien gordean, gozatu daitekeen maitasunarena. Ez da arraroa halatan, heriora hezi zakurrez gain, baroiak, printzeak eta anaiak erakartzen baldin baditu, botere zirkuluak bezain moralak debekatzen dituen harreman inzestualak ahantzi gabe.

Zer lotura eduki dezake horrelako kanta misteriotsuak?

Familiaren baitan, zenbaitetan, garatzen diren biolentzia mota baten adibide zoharra aurkitu daiteke. Amak haziriko jeloskeria mutuaren haritik, anaiak, alegia deus ez, kalitzen duen alabaren istorioa irakurtzen ahal dugu lerro hauetan. Maddik agian, sendiaren ohorea kolpatuko zuen, inguruko, eta menturaz bere klase sozialekoak ez ziren gizonekin jolasten ibiltzeagatik edo, metaforetan itorik, ehiza eraz apaindu bortxaketa kolektibo baten hatza dakarkigu. Mendeku bat ere gorpuztu dezake: oreinak, belarri oinetan adar txoak dituen, eskualdeko senar bat engainatuko zukeen eta horregatik hiltzea merezi zuen. Gizonezkoek taldean obratuko dute eta ama, azken finean gartziguaren ardura onartuz, suizidatuko da:

*Ama sala zolan nigarra begian,
Puñala sartu du bere bibotzean.*

Sortaldeko Europa osoan aurkitzen dira eresiarren bertsiio ezberdinak. Horrek frogatzen ote du sinboloak eta genero bortxakeriak inkontzienteetan sustraituak direla, hizkuntz aniztasunaren gain-gainetik? Honek egiten du abesti hau hain uhergarria.

Pazko arratsak latzak dira Euskal Herrian, *Bazko Gaüerdi Ondoak* adina. Udaberriaren etorrera eta bizitzaren birberritze alai ospatzeko ordez, gauaren itsuz balia, kantuetara jaukitzen diren hilketa erritualak konplitzen dira. Ondotik lasterrak, malkoak, doluak, eta ama xifrituen betirako damuak. Egunaren eta odol jarioaren arteko kontrastean datza eresi hauen oinarrizko edertasuna.

Abestiak humanotzen gaitu, eta sorgintzen... ■



Irakurle harrobia zaintzen

Bizitzako lehen urteetan literaturara hurbiltzen denak, zaletasunean harrapatuta geratzeko aukerak ditu. Aitzitik, badirudi gazteenentzako literatura sarri bigarren lerroan kokatzen dela. Horri aurre egiten, 25 urte bete ditu Galtzagorri euskarazko haur eta gazte literaturaren elkarteak.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |



Literaturzaletasuna haurrengana helarazteko hainbat egitasmo ditu Galtzagorri elkarteak.

EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA ahotan hartzekotan ezinbestez aipatzeko elkarte da Galtzagorri. 25 urteko ibilbidean arlo anitzetako sortzaileen topagune izan da, hasieratik finkatutako xedeak ipar hartuta: euskarazko haur eta gazte literatura ezagutaraztea eta hauen irakurzaletasuna bultzatzea.

Iñaki Markotegi elkarteko lehen-dakariaren esanetan, inoizko eskaintzarik zabalena dago, baina ezagutzan eta sortzaile eta irakurleen arteko zubi lanean bada egitekorik. “Ez da ahaztu behar haur eta gazteen irakurle harrobiaz ari garela, bidea erakutsi eta motibatu egin behar dira”, adierazi du.

Inoizko eskaintzarik zabalena dago euskarazko haur eta gazte literaturan, baina oraindik lan asko dago egiteko

Esku bete lan

Areto literarioak, irakurketa mintegiak eta irakurzaletasuna sustatzeko ikastaroak antolatuz hasi zuen bidea elkarteak. Azken hauen artean zenbait egitasmo egonkortsu eta 2000. urtetik aitzina jardunaren ardatz bihurtu dira: tartean, Liburu Gaztea –DBHko ikasleentzako literatur lehiaketa– Liburu Altxorra eta Liburu Ibiltariak –Haur eta Lehen Hezkuntzarako liburu mailegu zerbitzua– eta Bularretik Mintzora –0-6 urte artekoen irakurzaletasuna bultzatzeko proiektua; guraso, hezitzaile eta irakasleak formateaz arduratzen dena–. Teknologia berrieta-

ra gerturatz, Anjel Lertxundiren Maria Goikoak batbirulau! liburuaren aplikazioa sortu zuten iaz sakelako telefonorako.

Bestelako zeregin bat ere hartzen du bere gain Galtzagorrik: atzerriko lehiaketetarako euskal idazle, ilustratzaile zein itzultzaileak proposatzen ditu. Espainiako Estatuko OEPLI erakundearen euskal ordezkariak bermatu, eta nazioarteko IBBY erakundearen Ohorezko Zerrendarako eta Andersen sarietarako hautagaiak izendatzen ditu. Hain zuzen, Galtzagorrik proposatuta, elkartearen inguruan urteak lanean daramatzan Elena Odriozola ilustratzaileak irabazi du aurtengo Espainiako Ilustrazio Saria.

Hau gutxi balitz, urtean bitan *Behinola* plazaratzen du Galtzagorrik, haur eta gazte literaturari buruz euskaraz argitaratzen den aldizkari bakarra.

Bitartekarien garrantzia

Haur literaturari hainbeste kalitate exijitu ez izanaren eztabaida eza-guna da sektoreko eragileen artean, irizpide komertzialen nagusitasuna tarteko. Aitzitik, Markotegik dio kalitatezko liburu asko egon badaudela, bitartekaritza lana behar dela horiek irakurleengana iristeko. “Guraso edo irakasleen inplikazioa behar da, haurrek bakarrik ezin baitute jakin”.

Bestetik, idazle gazteen gabezia sumatzen dute elkarteak: “Azken boladan haur eta gazte literatura landuko duen idazle gazteen belaraldi falta ikusten dugu. Ez ordea, ilustratzaileetan”. Horrekin bat etorri da Yolanda Arrieta, baina egile trebeak izan arren, bertan sorturiko oso album ilustratu gutxi argitaratzen dela zehaztu du: “Liburuak ekosistema baten barruan mugitzen dira eta ekosistema hori hankamotz dago”, bere ustez.

Izan ere, euskal idazleek, oro har, 6-12 urte bitartekoei zuzendutako liburuak idazten dituzte, 0-6 urte artekoentzat eta 12tik gorakoentzat, aldiz, ezer gutxi. Kausa posiblez galdetuta, argitaletxeen bezero nagusi diren eskolek, tarte horretako liburuak erraz kokatzen dituztela erantzun du Arrietak. Idazle batentzat 0-6 arteko umeentzako literatura sortzea “lan zoragarria” izan daitekeela dio; egun baina, haur txikiarentzat, oro har, itzulpena baino ez dago. “Kalitate handikoak”, Markotegiren ustetan.

Ospatzeko modukoa



Urteurrenarekin bat eginez, *Behinola* aldizkariaren zenbaki berezia argitaratu du Galtzagorrik.

ELKARTEA 1990eko urrian sortu zela-eta, hil berean kokatu dituzte urtemugaren ospakizunak: urriaren 17an, ipuin kontalarien maratonia egin zuten San Telmo Museoa, eta hilaren 25ean, goizean Metrokoadroka Sormen Laborategiak *Ilustratzaileen enkante dramatizatua eta solidarioa* aurkeztuko du Arteko galerian. Arratsaldean, festa ospakizuna izango da San Telmo museoa.

Aurrera begira, ekoizpena baino –Mariasun Landak *Oreina biburtu zen neska* eta Bernardo Atxagak *Xola eta lapurra* liburuak iragarri berri dituzte esaterako–, eza-gutza eta erabilpena indartu behar direla ikusten dute. Horretaz arduratzen da Galtzagorri, eta horregatik Arrietak dio “subentzioen morrontza-neskametza” baino, baliabide gehiago merezi dituela. “Borondate handiz, denbora jarraituan eta ekinari zor, ikusgarritasun handirik gabe” egiten diharduen lanagatik.

Azkenaldian haur eta gazte literatura landuko duten idazle gazteak faltan sumatzen dira

“Era berean, haur txikiarentzako poesiari ez da inon lantzen, ez eskolan, ez Irakasle Eskoletan”, dio Etxebarriko idazleak. Bigarren gabeziari buruz, 12 urtetik gorako gazte literaturan, kanpoko beste faktore batzuei aurre egin behar zaiela gehitu du: gazteen ohiturak eta euskara, beste hizkuntzetako produktuen erakarritasuna, bitartekari sutsurik eza eta hezkuntza arautuan literaturak duen tarte hutsala, kasu.

Eskoletan irakurleak galtzen?

Zaletasuna bultzatzeko, literatura gozamenarekin lotu behar da eta horretan eskolek huts egiten dute Markotegirentzat. Bere hitzetan, “haur hezkuntzan ongi pasatzeak eta emozioak aintzat hartzeak leku gehiago du, baina adinean aurrera joan ahala, plazerarekin lotutako irakurketa gutxitu eta helburu akademikoekin lotzen da”. Irakurketak isiltasuna eta hausnarketaren gisakoak behar dituela aipatu du Arrietak, baina ez direla “ezaugarri modakoenak”.

Irakasleen formazioan ere mota honetako literatura gehiago landu beharko litzatekeenaren ustekoak dira biak. Ildo beretik, erakunde publikoek irakurketa plan bat osatzeko asmari heltzea ondo legoakeela erran du Galtzagorriko lehendakariak. ■

Literatura

Poesia kaiera
Eugenio Montale
Itzulpena: Anjel Lertxundi

Susa, 2015



Itsasoak eta beste

ESKERRIK ASKO, esan beharko zaio Anjel Lertxundiri, Montaleren poesia sakon bezain zaila, jolastia bezain iluna, klasifikatzeko hain mugakoa, gozatze-ko hain naturala, euskarara ekartzearren Susaren Munduko Poesia Kaiarak sailean. Kaiaren ardura daroan Beñat Sarasolak ere ez daki zelan azaldu, baina ederto azaltzen du liburuko hitzaurrean Montalek eragiten duena: “Izugarritzko ekoizpen poetikoa ez izanagatik, estilo eta molde aski ezberdineko poemak idatzi zituen Montalek. Horietako zenbaitetan, adibidez, poesiari berari eta arteari buruz hausnartu zuen, ukitu umoretsua gehituta inoiz (irakur *Poeta bat* eta *Errimak*). Egiatzki, ez da irri egiteko poesia mota bat Montalereana, ezpada XX. mende lazgarriaren testigu maiz aski iluna. Bi mundu gerrak eta faxismoa gertu-gertutik bizi izanda, nekez egin zezakeen ospakizun-poesiarik, eta giza hondamendia ere ekarri zuen *Gure garaiaren gorazarre* eta *Sumina* bezalako aletara. Mendea minutua den hondo bat irudikatu zuen *Gatibuaren ametsan*, eta akaso handik etorri zen mendea eta bigarrena gurtzatzen diren leku famatu hori”.

Eugenio Montale (Genova 1896-Milan 1981) pesimismoaren eta giza ezinegonaren poeta gisa katalogatu dute. Baina Eugenio Montale hori baino gehiago dela frogatzeko itzuli ditu Lertxundik hain

askotariko poemak hain paleta koloretsua erabiliz. Poesia bitala da irakurleak hemen aurkituko duena, ez tristea. Eta uneka badirudi kaiarak kontra egiten diola kritika kanonikoari eta Montale bizizalea barruntatzen dela bi mundu gerren artean: “Antzinako, horditurik nauka / zure ahoetatik irteten den ahotsak, / zabaltzen direnean kanpai berdeen gisa, / eta atzerako indarra hartu eta gero, desegin. / Auzo zenuen nire uda / urrunen etxea, badakizu, / eguzkiak kiskali egiten duen lur hartan / eta eltxoek airea lainotzen. / Orduan bezala harritzen naiz zure aurrean, / itsaso”.

Nobel sariak poesia sano fisikoarekin egiten du metafisika: usaindu, entzun, sufritu egiten dira bere hitzak. Ez da hermetikoa: plazera da bere leku pribatuak, bere mamu pertsonalak ezagutzea, bere hitz joko ulertezinak dastatzea. Ez da zaila, baizik eta atsegingarriki konplikatua. Ez da goibela, baizik eta faxismoa bezain arrea. Montale da poeta bat sintaxia bortxatzen duena, hizkuntza zuririk ez darabilena, bihotzarekin idazten duena filtrorik apenas ezarri gabe bere etorriari eta bere tristeziari eta bere pozari. Montale da zure buruari, irakurle, opatu behar diozun esperientzia estetikoa. ■

Igor Estankona

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com



Sangre en el Atlántico
Los Galerna vs. Cavernarios
Gaztelupeko Hotsak, 2015

Rock instrumentalaren hizkuntza, entzule eta mugak gainditzeko gaitasuna

2008AN Arrasateko The 5 Twisters, Foxy Boxxi, Lost Souls eta herri horretako beste musika talde batzuetan ibilitako zenbait musikariek Los Galerna sortu zuten. Hasieran The Ventures, The Shadows eta antzeko klasikoekin tamainako surfrocka egiten zuten; eta kantu propioekin taldearen izen bereko disko txukuna kaleratu zuten. Baina Los Galernaren helburua harago zihoan; erakutsi nahi zuten musika instrumentala egin arren, ahots gabe asko espresatu daitekeela eta, bide batez, surfaren alderdi apurtzaileena erakutsi.

Surfusion bigarren lanean, pauso askoz ausartagoa eman zuten eta taldekide bakoitzaren musika-bizipenetatik abiatuta, gai izan ziren surfari ukitu ganberroagoa emateko, estiloa bertuosismotik parametro rockeroagoetara eramateko eta surfaren mantuplean beste hainbat estilori lekua egiteko. Progresio eta aldaketa handiko kantuak idatzi zituzten, garagetik (*Dale fuzz!*), latino eta funkyaren groovetik (*Surfusion*), espioi soinu-bandak konposatzerara (*Dr. Bocanegra*), westernetara (*Quetzalcoatl*), edo psikodeliara zein erritmo afrikarretara salto egiteko.

Ordurako soberan egiaztatua zuten taldeak ez duela hurbilean lehiakiderik, eta edozein agertokitan direla ere, maila oso goian uzten dutela –Mexikoko ikusle jantziek ere egiaztatu ahal izan duten bezala–. Hain zuzen ere, taldeak, ikuskizuna ematearekin batera, punk eta rockandroll biziaren astindua ematen die ahotsik gabeko kantu irekienei. Eta saxoa taldean erabat barneratuta, *Akelarre* diskoan, mozorrotutako erritual arriskutsuan, bertuosismoa, ukitu vintagea, orkestren dotorezia, westerna, swinga, 70eko hardrocka, garagea, countrya, hillbilli-ya zein Vampisouleko talde beroenen marka azalera zitu zuten.

Izan ere, Mexikokoa da munduan surf eta rock instrumentalean garatuen dagoen eszena; eta hor-taz, ez da kasualitatea urtero arrasatearrak itsasoaren bestaldean birak egiteko eskaintzak jaso eta,



JOSU TXINTXURRETA

jakina, gauzatzea. Lerro hauek irakurtzeko orduan ere han izango da taldea berriro; eta joan aurretik The Cavernarios taldearekin batera honako lana kaleratu dute.

The Cavernarios Cuatitlán Izcalli hiriko (Mexiko) taldea da, 2001etik surf, garage eta rockabilly estilok landuz disko ugari kaleratu dituena. Aspaldian, gainera, rock instrumentalera erabat lerratu da. Mexikarrek ireki dute erdibanako diskoa neurtutako rock-and-roll instrumental beroa den *Twist del elefante* piezarekin. Jarraian dator *El gran sur* misteriotsu eta aldi berean bertuosoa, muturreko sonoritatea eta ia kiribilean bukatzen den garapena duena. Eta postre gisa Los Galerna taldearen *Como pica esta arena* kantuarekin ausartu dira, rock-and-roll erritmoarekin, distortsioarekin eta afinazio desberdinarekin.

Los Galerna diskoaren bigarren aldeko jaun eta jabe dira: *Jaguar stompek* eztanda egin eta deabruak gidatutako saxoarekin surf jantzia duen punk-rocka eta ukitu latinoak ezkontzeko ausardia dute. *Toneladas de reverb*, berriz, modu pausatua eta mugaldekorekin hasten bada ere, gerora distortsionatu eta zaldi trosta eroari ekiten dio. Bukatzeko, The Cavernarios omentzen dute *Soy de la costari*, jai ukitua kendu gabe, erritmoa eta reverba biderkatuz. ■

Iker Barandiaran

Emakumeak telesail nordikoetan



Forbrydelsen, Bron/broen eta Borgen telesailek iparra markatu dute emakumeei protagonismoa emanaz.

NEW YORKEKO FILM AKADEMIAK *Genero berdintasunik eza zinemari* izenburuko txostenean 2007tik 2012ra bitartean diru gehien bildu duten Hollywoodeko 500 filmetan oinarrituta, emakumezko rola aztertu zituen zinemaren barruan orain hilabete batzuk. Bertan irakur daiteke testua duten rol guztien %30,8 besterik ez direla emakumeentzat eta horien artean, %15 baino ez direla protagonistak. Ameriketako pantaila txikira salto eginez gero, panorama apur bat aldatzen da, 2013-2014ko datuen arabera, prime time barruan azaltzen diren pertsonaien %42 emakumezkoak baitira, baina portzentaje eskasak eta lotsagarriak dira oraindik ere.

Geroz eta telesail biribilagoak esportatzen ari diren Europa iparraldeko hotzera salto eginez, datu horiek nabarmen aldatzen dira. *Nordic noir* deituriko thriller ilunak, naturarekin erlazioaturiko suspensezko istorioak eta bertako politikak hankaz gora jartzeko gai diren ekoizpenak: gehienek, bi euskarri nagusitan oinarritzen dituzte euren tramak. Alde batetik, gizarte kritika zizta-tzailea; eta bestetik, pertsonaia sakonez osaturiko gidoiak. Kasu gehienetan pertsonaia horiek emakumeak izaten dira. Indar handikoak, erabakitzaileak eta ausartak. Ezinezkoa da telesail hauek ulertzea haiek gabe. Imajinatzen al duzue, Ameriketako hiru telesail garrantzitsuenen protagonistak emakumeak izango balira? Niri kosta egiten zait. Baina, *Urrezko triunbiratu nordikoa* osatzen duten telesailetan hala gertatzen da.

Fenomeno honen aitzindari izan zen *Forbrydelsen* bikaina. Irudikatu Sergio Leoneren filmetan azaltzen zen Clint Estwood hori, Danimarkan jaioa, emakumea eta komisaldegian lanean. Ba horrelakoa da Sarah Lund detektibea. Zalantzarik gabe, telebistak azken urteetan eman duen pertsonaia sakon eta konplexu-netarikoa. Ekoizleek ordura arte erakusten zen emakume tradizionalaren irudia hausteko intentzioarekin sortu zuten. Lund ausarta eta nekazina da, baina batez ere, bere itxuraz eta sexualitateaz kezkatzen ez den emakumea. Sofie Gråbøl aktorea sormen prozesu horren parte izan zen eta hainbat eztabaida izan zituen Søren Sveistrup gidoilariarekin. Bere ikuspuntua ezinbestekoa izan zen Lunden hazpegiak definitzeko. Iraganeko misterioa mantentzetik arroparen aukeraketaraino, bereziki azpimarragarria da inguratzeko duen ororekin daukan isolamendu emozionala.

Beste ezinbesteko pertsonaia, *Bron/broen* suediar-danimarkar ekoizpenean aurki dezakegu. Gizarte kritika burutsua eta erritmoz beteriko atalak ditu euskarri telesail honek. Baina Saga Noren pertsonaia zoragarriarengatik izango ez balitz, paperezko zimenduekin eraikia legoke. Emakume bitxia, bakartia eta Asperger sindromearen eraginez besteekin erlazionatzeko arazo larriak dituena. Maiz ikusi dugu sindrome hori telebistan, baina beti gizonezkoengan: Sheldon Cooper, Dexter Morgan, Monk, Sherlock edo House (gradu desberdinetan noski). Telesailak hasieratik pertsonaiaren garapenarekin jolasten du, arazo pertsonalak gainditzen doan heinean profesionalki kasua aurrera eramanez. Pertsonaia eraikitzerako orduan, *Homeland* telesailetik hainbeste gustatzen zaigun Carrie Mathisonekin antzekotasun ugari dauzkala ohartuko zarete.

Triunbiratu horren azkena, baina nolabehi ezinbestekoa, *Borgen* telesaileko Birgitte Nyborg dugu. Telebistak eman duen lehen emakumezko presidentetarikoa bat. Nabarmenezkoa egiten du bere pertsonaiaren gizatiartze prozesuak. Zuzenean sartzen gaitu bere familiaren eremu pribatuan. Politikariaren irudi hotz eta eskurazina guztiz suntsituz, pertsona normal eta arrunt baten mailan jartzen du. Politikaren lehen lerrora iritsita, hainbat momentutan eskuetatik alde egingo dion eboluzio pertsonala eta profesionala bizi beharko du. Emakumearen irudi eta eginkizunak oso modu interesgarrian aurkezten ditu telesail honek, topikoak eraitsiz eta estereotipoetara jo gabe.

Ez pentsa, dena den, pozteko moduko argudioak ditugunik. Positiboa da, noski, Europa iparraldean egiten ari direna. Baina, emakumeen presentzia azaleratze hutsagatik poztu behar al dugu? Portzentaje horiek gora doazen heinean dena egina al dago? Jakina ezetz. Mota honetako artikulua idazteko beharrik ez dagoenean, orduan egongo da zer ospatu. Salbuespen dena, ohiko bihurtzen denean. Eta batez ere, urte askoan matxista izan den industrian gizon eta emakumeen arteko desberdintasun faltsu guztiak betiko suntsitzen ditugunean. ■

Gaizka Izagirre

Gurutzegrama tematikoa

Gaia: Gasteizko eraikinak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22			
1																									
2																									
3																									
4																									
5																									
6																									
7																									
8																									
9																									
10																									

Ezker-eskuin:

1. Aterki. Azaldu. Egokiera on. 2. Rutenioaren sinboloa. Errainu. Ehuna. 3. Kiroletan kontatzeko unitateak. Nafarroako herria. 4. Arrain mota. Hilean kobratzen den soldata. 5. Ongi finkatu gabe. 6. Zentimo. Baldintzazko esaldietan jartzen den partikula. 7. Gizonezko izena. Ezezko, ukapen. 8. Erraz negar egiten duena. Errepikatuz Marokoko janaria. Letra izena (alderantziz). 9. Erorketa baten onomatopeia. Ikas eta ari. **Eskoriatza ...**, **Alde Zaharreko jauregia**, zeinaren ondoan Gasteizko harresiaren zati bat ikus baitaiteke. XVI. mendearen erdialdean eraiki zuten eta arkitektura zibil errenazentistaren adibiderik bikainenetakoa da. Gaur egun, jauregia Gasteizko Udalarena da. Gar. 10. ... hartu, aintzat hartu. Beldurtuta, izututa.

Goitik behera:

1. Garen hauek. ... **Andreaoren Dorrea**, **Alde Zaharrean** dagoen XV. mendeko dorretxea. Gaur egun Arabako Natura Zientzien museoaren egoitza da. 2. Jesarri. 3. Niregan. 4. Infusioa. 5. Barrez. 6. **2002an** inauguratu zuten arte garaikideko museoa. Hil honen 23tik 2016ko urtarrilaren 31ra arte "**Punk. Beren aztarnak arte garaikidean**" erakusketa egongo da ikusgai. Potka hitzaren bukaera. 7. Lamak. Intsektu mota (pl). 8. Eginkizun (aldrebes). 9. Hamar dezilitro. 10. Begiradak. 11. Irribera, jostaria. 12. Mako, esekitoki. Lore-sorta. 13. Akustika (laburdura). 14. Harold Joseph ..., Alderdi Laboristako kidea izan zen politikari britainiarra. 15. Deuteronomioa. Modu atzizkia (alderantziz). 16. Izeko. 17. **Euskararen Etxea** hartzen duen **Alde Zaharreko jauregia**. **Kulturgintzari** lotutako topagunea da eta **Gasteizko Kafe Antzokia** egitasmoaren oinarrietako bat. 18. Aho-atal. Seigarren nota. 19. Larruzko xingola mehe. 20. Barik. Errepikatuz, txori mota. 21. Burdinolak. Landa. 22. Ugaria. Altua, garaia.

Betegrama

Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.

				U		
		E		G		
	U				R	
Z	I			U		T U
	I					U
		R		O		
				U		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Gorantz zuzen. 2. Uda.
3. Berezitasun. 4. Gipuzkoako udalerrria. 5. Ura eramateko erreten artifizial.

Soluzioak

		U				
V	O	D	R	A	V	
U	D	T	E	I	E	
U	V	T	U	R	I	Z
	R	K	E	R	Z	U
	A	G	A	Z	E	R
						U

T	V	N	V	X
V	R	U	I	R
N	U	S	V	L
V	R	V	U	D
K	I	T	U	Z

V	L	U	L	V	R	V	K	I	L	V	Z	L	O	K	V	Z	L	N	I	V
R	A	V	K	L	I	B	E	L	S	E	S	E	A	V	K	I	I	R	A	V
V					D		S	U	S	K				I	L	A	R	T	A	N
G					E		Z	E	L	A	V			T	L	I	F	E	R	S
					N	I	D	I	N	B	A	L	D	I	N	O	M	I	I	N
V					V					V	K	O	T	U						L
O	K	E	T	I	H					O	I	V	R	V	K	I				O
V	R	V	H	I						V	O	L	N	V	L					
V	T	V	H	I	O					V	T	S	I	O	R	U				U
N	O	G	M	U	M	U	T	U	A	G	E	R	T	O	S	A	R	D	A	G

Oilo jendearen gazta

GALIUM APARINE ziabelar latzaren lehengusina bat, ziabelar horia, *Galium verum*, esnearen gatzagi modura erabili izan omen da. Gaztelera *cuajaleche* eta *hierba cuajadera*, katalanez *quallalet*, galegoz *callaleite* eta *herba coalleira*, frantsesez *caille-lait*... Esnea gatzatu edo mamitzeko lanari lotutako landarea dela asmatzea ez da zaila. Itxuraz, haren loreak ibiltzen ziren horretarako.

Landare genero horren izenak ere nahikoa badio: *galium*. Grezierazko *gala* hitzak esnea adierazten du. Espeziearen izenak, *verum*, latinez “benetako” esan nahi du. Beraz, esnea gatzatzeko benetako belarra izango da.

Euskaraz “ziabelarra” deitzen diogu. Guk etxean *zizyatu* ahoskatzen dugun hitza ikasi genuen olio hotzarekin loditu eta gogortu dela esateko; zihotu, alegia. Hortik ote datorchio ziabelar izena? Bai noski.

Koloreztatzaile ezaguna da: ilea larutzeko gaia izan da, han eta hemen. Ingalaterran, Galesko mugan dagoen Gloucestershiren egiten duten Double Gloucester gazta ezagunari bere kolore bereizgarria emateko erabiltzen da ziabelar horia.



PETER O'CONNOR-CC BY SA

Gaztagintzan lan horri lotua goa egon daiteke, benetako zihotzeari edo gatzatzeari baino. Itxuraz, esnea gatzatzeko entzima edo osagairik ez du, mito soila omen da. Ziriari zotza sartzeko, zenbaitetik dio ukuiluaren aldamenean belarra egote soila nahikoa dela esnea jetzi orduko gatzatzeko.

Kolore, usain eta dasta gustagarri goxoak eransten dizkiola, bai,

Ziabelar horia, *Galium verum*.

jakina da. Horrexegatik erabiliko da gaztagintzan...

Galium izenari beste jatorririk ematen dionik ere bada: *gallus* latinoa. Oilarra, alegia. Ziabelarraren hostoaren formak erraz dakar gogora oilo jendearen hanka. Itxuratik itxurara. ■

GURE BEGIZ IKUSTEKO

Sintonizatutik Telebistan, Euskaltel Digitalean edo Interneten: www.hamaiika.eus

hamaiika

telebista

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Arantxa Iturbe eta Jaime Otamendi:

“Ametsetako baratzea bezain betea da liburua”

AMETSETAKO BARATZEA bezain betea da Jakoba Errekondoren liburua. Baratzea bizi nahi duenarentzat aholkuz betea. Baina baita baratzeaz pentsatu nahi duenarentzat ere. Edo bizitzaz hausnartu.

Ametsetako baratzea bezain koloretsua da. Eta ez bista-gozagarri bakarrik. Zentzu guztiak harrapatzeko egina da, egileak zentzu guztiak hartara jarriak dituelako. Baratzekainak baratzera bezala.

Zentzuzkoa da, ondorioz, behar eta nahi desberdinak asebetetze-ko modukoa dela esatea. Baratzean lagungarri, mesanotxean lasaigarri, ikas-mahaian jakingarri. Lanerako ongarri eta aisialdirako jostagarri.

Zorte handia da dakienak ezkutatu beharrean, zabaltzeko gogoa eta ahalmena izatea. Eta handiagoa oraindik, dakienak gehiago jakiteko duen irrika ez dela liburu honetan amaituko konturatzeari. Jakobak jarraituko du entzuten eta begiratzen, eta galdetzen, eta saskia eta sarea, aitzurra eta arkatza, lurra eta papera abildadez erabiltzen.

Halakoak dira gogoko eginkizunean zentzu guztiez gain bihotza jartzen dutenak.



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €
 ☎ 943 371545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus
 Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

Bizi Baratzea liburuaz Errekondok Ainhize-Monjolosen emandako hitzaldiaren bideoa ikusgai www.argia.eus/multimedia helbidean.

@bizibaratzea · Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN SOLASALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Ondorengo hitzorduek:

Urriak 27
Donostia

Antiguoko Txantxerreka gaztetxean, 19:00etan. AntiguaOttarrak kontsumo taldeak antolatuta.

Urriak 29
Ereñotzu

Auzo Udalean, 19:00etan. Olak auzo elkarteak antolatuta.

Urriak 30
Berastegi

Udaletxe aretoan, 18:30ean. Kultur astearren barruan.

Azaroak 4
Gasteiz

Oihaneder Euskararen Etxean, 19:00etan.

Azaroak 5
Mendaro

Trinidadeko basilizian, 18:30ean

Azaroak 9
Zaldibia

Kultur Etxean, 18:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu dezakezu.

sustapena@argia.eus


☎ 943 371 545

Nobel Sarien bitxikeriak


URRIKO LEHEN EGUNETAN 2015eko Nobel saridunen berri izan genuen. 1901etik urtero ematen dira sariok, eta hainbeste urtetan historia harrigarri bat baino gehiago gertatu da haien inguruan. Lerro hauetan horietako batzuk aipatuko ditugu, den-denak Medikuntza Nobel Sariarekin lotutakoak.

Werner Forssmann-ek 1956. urtean jaso zuen saria, gorputzeko zainetan erabiltzeko moduko kateterra garatzeagatik. Probetan, Forssmanek ez zuen animaliarik erabili, bere gorputza baizik; esku bateko zainean kateterra sartu eta bihotzeraino eraman zuen.

1949an Antonio Egas Moniz izan zen saritua, gaixotasun mentalak zituztenengan lobotomiaren eragina frogatzeagatik. Begi-globoaren gainetik espatula sartzen zuen garuna ukitu arte, eta behin hori eginda, behar zen puska mozten zuen.



WELCOME LIBRARY-CC BY



ROGER HIGGINS

Ezkerrean Alexander Fleming, 1945eko Medikuntza Nobel Saria eskuratu zuena. Eskuinean Selman Waksman, 1952ko irabazlea.

1929an Christiaan Eijkman Jakartara bidali zuten beri-beri gaitzaren nondik norakoak aztertzeke. Eijkman ohartu zen arroz zuria jaten zuten oiloek gizaki gaixoen sintoma berdinak garatzen zituztela, eta aldiz, azaldun arroza jaten zutenak osasuntsu zeudela. Pertsonen dieta bera ezarri, eta akabo arazoa.

Alexander Fleming oporretara joan zen bakterioak zituen kutxatxo bat ixtea ahaztuta. Itzulitakoan ikusi zuen estafilokokoak gero eta gutxiago zirela, toxina arraro baten eraginez. Nahi gabe penizilina topatu zuen horrela, eta saria jaso zuen 1945ean.

Selman Waksman ikerlariaren laguntzailea zen Albert Shatz-ek estreptomizina antibiotikoa aurkitu zuen, baina bere nagusiak ez zuen aipatu ere egin eta ohore osoa bere gain hartu zuen. Saria eman zioten 1952. urtean.

Ausardiak, zorteak edo, gordin esanda, lapurretak Nobel sari bat eman dezaketela erakusten dute adibideok. Ba ote horrelakorik gaur egun? Ez dugu guk ezetz esango. ■

Baliteke unibertsoa, hasieran, likidoa izatea

Ikerlariak oso seguru izan dira unibertsoaren hasierako osagai nagusia gasa izango zela, baina berriki CERNen egindako saiakera batek zalantzan jarri du hipotesi hori. Eguzkiak duen tenperatura baino 250.000 aldiz handiagoan aritu dira, eta gasa beharrean likidoa aurkitu dute.

ttiki.com/341999
(Gaztelaniaz)

Afrika historiaurreko migrazioen sorburu, eta hartzaile ere bai

Duela 3.000 urte Eurasiatik Afrika ekialdera migrazio handi bat izan zela ondorioztatu dute 4.500 urteko Etiopiako fosil baten genoma aztertuta, eta Europako, Ekialde Hurbileko eta Afrikako gaur egungo populazioen genomekin alderatuta. Nazioarteko talde batek egin du ikerketa, eta emaitzak *Science* aldizkarian argitaratu dituzte.

ttiki.com/342000
(Euskaraz)

Urak hoztutako ordenagailuak

Txipetan kokatutako mikrohodietan ura zirkulatuaraziz beroa ohiko bitartekoekin baino askoz ere hobeto barreiatzen dela frogatu dute AEBetako Georgia Tech institutuan. Beroa barreiatzeko egungo sistemak nagusiki haizagailuetan oinarritzen dira, eta haien iraupena mugatua da.

ttiki.com/342001
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

Eboluzioaren teoria

Darwin baino 500 urte lehenago

TUNIS, 1332KO MAIATZAREN 27A. Ibn Khaldun historialari eta filosofoa jaio zen Al Andaluseko familia izandun baten baitan.

Soziologia, historiografia, demografia eta ekonomia modernoaren sortzaileetakotzat jotzen da, nagusiki 1377ko *Muqaddimah* liburuan egindako ekarpenengatik. *Muqaddimah* hitzak “sarrera” edo “hitzaurrea” esan nahi du arabieraz eta, berez, *Kitabu l-ibar* (Ikasgaien liburua) munduko historiari buruzko lanaren hitzaurrea izateko sortu zuen egileak. Baina Ibn Khaldun bera bizirik zen artean ere gainerako sei liburukien artean nabarmendu zen, lan independentea bailitzan.

Muqaddimah horretan Khaldun historia unibertsalaren nolabaiteko ikuspegia ematen lehenetarikoa izan zen. Gatazka sozialaren teoria sortu zuen eta gizartea aztertzeke zientzia baten premia aldarrikatu. Ekonomia “mantenu” eta “etekin” kontzeptuak bereizi zituen, besteak beste. Eta darwinismoaren aitzatzen –edo herenaitonatzat– jotzen da, Darwin bera jaio baino ehunka urte lehenago idatzitakoengatik.

“Ondoren, kreazioaren munduari erreparatu behar-ko genioke. Mineralekin hasi zen, eta modu asmotsuan, mailaz maila, landare eta animalietaraino egin zuen aurrera. Mineralen azken fasea landareen lehen fasearekin lotuta dago, hala nola belarrekin eta hazirik gabeko landareekin. Landareen azken faseko aleak, esaterako, palmondoak eta mahatsondoak, animalien lehen fasearekin konektatuta daude, hau da, ukitzeke ahalmena besterik ez duten barakuilu eta oskoldunekin. Sortutako izaki horiei dagokienez, ‘lotura’ hitzak esan nahi du talde bakoitzeko azken fasea erabat prest dagoela hurrengo taldeko lehen fasea izateko”.

Eta hurrengo paragrafoan are nabarmenagoak dira espezieen eboluzioaren teoriaren zantzuak. “Orduan,



Ibn Khaldunen (1332-1406) irudia, Tuniseko 1994ko hamar dinarreko billetean.

animalien mundua zabaldu zen, espezieak ugaritu ziren, eta mailakako kreazio prozesua, azkenean, pentsatzeko eta hausnartzeko gai den gizakiraino iritsi zen. Gizakia- ren fasea tximinoen mundutik dator; tximinoetan zolitasuna eta pertzepzioa aurki daitezke, baina benetako hausnarketaren eta pentsatzearen fasera iritsi gabe. Une horretan gizakiaren lehen fasean sartzen gara”.

482 urte geroago, Charles Darwinek *Espezieen jatorria: hautespen naturalaren bidez* lan “berritzailea” idatzi zuen. ■

Arrastoak


Turismoak gerrak baino kalte handiagoa egiten dio ondareari

AOTEAROA-CC BY SA



GIZON-EMAKUME GUZTION kultur ondare diren 802 tokiak urtero aztertzen ditu UNESCOk, zer egoeratan dauden jakiteko. 1979tik 2013ra arteko txosten horiek aztertu dituzte, ondarearentzat kaltegarrienak diren elementuak identifikatzeko. Gatazkak faktore erabakigarria direla pentsatzekoa da, batez ere azkenaldian Palmira (argazkian) suntsitu izanaren berri zabaldu

denean. Baina txostenek oso bestelako ondorioa utzi dute agerian: Gerren eragina “hutsala” da beste faktore batzuekin alderatuta: erakundeen kudeaketa kaxkarra, kontrolik gabeko hirigintza garapena eta erabilera desegokia. Azken puntu horretan, turismoaren gehiegizko ustiatzea nabarmentzen da: 1980an turismoak toki horien %8ri eragin zien eta 2013an, berriz, %75i. ■



Euskal Herria ezagutuz

MUGAKO BIDEA (BERA-URRUÑA)

Mugako kontuak, belarrira

Mugak kontrabandoa eragiten du, gerra gordintzen du, bertakoen jarduera eta izaera taxutzen du. Eman eta kendu egiten du. Beratarrek eta urruñarrak bereizten –edo elkartzen– dituen lerroaren inguruan ederki dakite hori. Mugako Bidea proiektuak telefonoa instalatzeko audio-gida bat prestatu du, banalerro zati hori ibili ahala, mugako fenomeno bereziaren berri entzuteko.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

Argazkiak: Asier Gogortza





Ibardinen hasi eta bukatzen da Mugako Bidea. Mugaren eraginaren erakusgarri da saltoki multzo berezia.

IBARDIN gaina da Mugako Bidearen abiapuntu eta helmuga. Baita inguru hauetan mugak duen eragin nabarmenaren froga ere. Hogeitik gora benta, mendi magalean, bereizte-lerroaren hegoaldean lerratuta, saltoki-gune bitxia osatuz. Tabakoa eta alkohola dira oraindik produktu izarrak, baina eskaintza geroz eta zabalagoa da: opariak, altzariak, arropa... Igande goizeko erosleen artean, mendiko arropaz jantzita, lekuz kanpo sentitzen gara ia.

Baina Ibardingo Turismo Bulegora iritsi, entzungailuak belarrietan jarri eta mugikorrean aplikazioa abiaraztean, gidari birtualak leku egokian gaudela baieztatu digu. Lehenik, bere burua aurkeztu du esatariak: sukaldea Urruñan eta komuna Beran dauzkan Erdikobordako Frantzisko Irazoki da; lagunartean, *Erdiko Patxiku* edo, besterik gabe, *Erdiko*. Pertsonaia eta haren sortetxea alegiazkoak izan arren, hemendik aurrera kontatuko dizkigunak benetakoak dira.

Gorria Bentako biribilgunean, 13. mugarrian, hasi zaigu berriro hizketan. Joan den mendearen

hasieran hantxe egurrezko benta txiki bat, Ibardingo lehena, zegoela esan digu.

2.500 kontrabandista Lapurdiko aldean

Bidegurutze horretan Urruña alde-
ra egingo dugu metro batzuetan. Berehala, errepidea utzi eta eskuin-
aldeko mandabidea hartuta, *Patxi-
ku* deika sumatu dugu. Eta “muga
non, kontrabandoa han” esakunea
baieztatzen duen datu esanguratsua

**“... pentsa ezazue zer
izanen zen garai batean
bidexka hauetan barna
30 kiloko zakua bizkar
gainean genuela
ibiltzea... eta ilunpean!”**

bota du: 1870. urte inguruan, Fran-
tziako mugazainek mugaren alde
honetan 283 kontrabando-talde eta
2.556 kontrabandista zenbatu omen
zituzten. Bera aldekoak ez ziren
askoz gutxiago izango, maiz kontra-
bando kontuetan nahasita zeuden

guardiek zenbatzeko lana hartu izan
balute.

Hesiaren ondotik maldan gora
egingo dugu hurrena. Ibilbideko
zatirik gogorrena da, baina bidela-
gun birtualaren hitzek arintzen dute
aldapa: “... pentsa ezazue zer izanen
zen garai batean bidexka hauetan
barna 30 kiloko zakua bizkar gai-
nean genuela ibiltzea... eta ilun-
pean!”.

Bidea laburra eta oro har erraza
da. 3,74 kilometroak, audio-gidaren
azalpenak lasai entzuteko geldial-
diak eginez, bi ordutan egin daitez-
ke; ibilbide osoa 300 eta 400 metro-
ko altitudeen artean dago eta, beraz,
garaiera aldeak txikiak dira.

Eltzezuak, mendizorriak, oihanzorriak...

Gure bidaideak kontrabandoaren
gorabeherak xeheago azaldu ditu
ondoren. Eta, besteak beste, Beran
guardiei *eltzetzuak* esaten dietela
jakin dugu –Aezkoan *mendizorriak*
esaten omen diete eta, Eugi aldean,
berriz, *oihanzorriak*–. Bi egunerako
muga zaintzera joaten zirenean,
guardiek eltze handi bat eramaten
zuten jana berotzeko eta haien arro-



Bidearen zati bat muga lerroaren gainean egin dugu, mugarriz mugarri, Larrun parean dugula.

pek usain nabarmena hartzen zuten. Horrek eman zien ezizena guardiei eta arriskua urrundik usaintzeko aukera kontrabandistei.

Mugatik bizi bai, baina tarteka hil ere egiten zirela gogorarazi digu, Ezkerreneko Bordako Rafael Elgorriagari gertatutakoa kontatuta: Bilboko ospitale baterako ebakuntza-tresnak omen zeramatzan, guardiek tiroz jo zutenean.

14. mugarrian heldu diogu berriro muga marrari; aitzakia polita harri kozkor hauei buruz gehiago jakiteko: 1856an amaitu omen zituzten zedarriak ipintzeko lanak; Beran 40 jarri zituzten eta, Nafarroa aldenik alde ebakiz, guztira, 276.

Edozer pasa zitekeen ezkutuan

15. mugarrian ikuspegia aparta da. Itsasora begira, mendebaldean Hondarribia ikusten da, parean Donibane Lohizune, eta harago Miarriz eta Baiona. Zerua garbigarbi dagoen egunetan Landetako hondartzak ere ikusten omen dira. Ekialdean Larrun daukagu –berata-

rrek Larun esaten diote; beraz, gure audio-gidak ere bai– eta handik aurrera, Atxuri, Mendaur, Bianditz eta, erdi gordeta, Aiako Harriak. Entzungailuetatik kontrabandoan pasatzen ziren produktuen zerrenda amaigabea datorkigu: tabakoa,

**1856an amaitu omen
zituzten mugarriak
ipintzeko lanak;
Nafarroa osoan 256 jarri
zituzten, Beran 40**

gatza, kafea, irina, kobrea, ardoa, pattarra, musean egiteko kartak, aziendak, bizikletak, orratzak, zapatat, botoiak, zilarra, puntillak, penizilina, traktoreak, irudi erlijiosoak, botikak... Talgo trenaren errodamenduak, esaterako, mendi hauetan barna pasa omen zituzten banakabanaka.

17. mugarrira iritsi baino lehen, mugikorrak berriro eskatu digu entzungailuak jartzeko. Oraingoan

kontrabando kontuak ez dizkigu Frantzisko Irazokik kontatuko; zuzenean, kontrabandoan aritutakoen ahotik entzungo ditugu.

Hortxe utziko dugu muga marra, eskuinera, Bera aldera, egiteko. Hemendik aurrerako bide guztia mugaz hegoaldera egingo dugu. Ez da zaila ibilbidea zuzen egitea eta, gainera, okerreko bidea hartuz gero audio-gidak abisatuko dizu. Baina galduz gero, bidelagunak ez dizu beti errieta egingo eta, hurrengo puntura iritsi baino lehen nahastuz gero, beharbada, Armalako harrobiaren berri emango dizu, opari.

Gerren arrastoak

Muga lerroarekin batera, kontrabandoa ere atzean utzi dugu, eta gerra hotsek inguratu gaituzte. “Muga tokia, gerra tokia”. Gune estrategikoa izanik, gatazka askok utzi dute arrastoa bazterrotan: Alzateko jaunak agindutako triskantzak, Napoleonen Gerrek, Karlitadek, 1936ko Gerrak, Bigarren Mundu Gerrak... 1813an milaka soldadu elkartu omen ziren lur



Ibilbideko audio-gidak bunker honetan sartzeko proposatzen du. 180 inguru eraiki zituzten Beran, Bigarren Mundu Gerran.

hauetan: batetik erretiratzen ari ziren frantziarrak eta, bestetik, aliatuak; ingelesak eta espainiarrak nagusiki. Larrun ingurua berunezko bala biribilez josi zuten eta eskualdean miseria zabaldu, topatzen zuten guztia arpilatuta. Bortziritan 600 lagun inguru hil omen ziren urte haietan, goseak eta gaitzek jota, hamarretik bat ia.

Bidean behera, Lartzin muinoa dugu parez pare, eta barruan, arrokan zulatua, komunikazio lanetarako bunker bat. Espainiako Gerra amaituta eta Bigarren Mundu Gerra betean, Franco beldur zen aliatuak sartuko ote ziren eta porlanezko defentsa lerro bat eraikitzeko agindu zuen. Bide osoan lagun izan dugun ahotsaren arabera, Pirinioetan 5.000 bunker inguru egin zituzten, Nafarroan eta Gipuzkoan 1.800, eta Beran 180 bat. Milaka eta milaka langilek jardun behar izan zuten horiek guztiak eraikitzeko, eta denak ez ziren militarrik; bunker horietako asko gerrako presoek behartuta eta baldintza latzetan jaso zituzten.

Hala, hurrengo geldialdia Okalarrereko bunkerrean egin dugu. Artilleriako bunkerra da eta barruan tankeen kontrako kanoia sartu behar zutenek, sarrera oso zabala du. Putzuren bat kenduta, sartzeko ez du inolako zailtasunik, baina eskuargia eramanda hobe, barruko gelako leihoa itxita baitago.

Azkenean ez zen aliatuen erasorik izan eta porlanezko zulo hauek ez zituzten militarrek erabili. Bertakoek, tarteka, bai, Patxiku Erdikoak esan digunez: neska-mutikoez jolasen ibiltzeko eta kontrabandistek paketeak gordetzeko.

Pertsonak ere eramaten zituzten alde batetik bestera

Ibardin bertan dugula, lehengo zerrenda luzean aipatu gabeko gaien kontrabandoari heldu dio telefono hitzontziak, giza kontrabandoari. 1936ko gerran ezkertiar eta abertzale asko pasa zen Urruñara, eta Bigarren Mundu Gerran soldadu eta judu andanak igaro zuen muga kontrako noranzkoan. Gerrak amaituta, pobreziak ekarri zituen kanpota-

Teknologia berriak mugako bide zaharretan

Mugako Bidea audio-gidaren laguntzaz egiteko, nahikoa da Android G4+ sistema operatiboa duen smartphonea izatea. www.mugakobidea.com webgunean instalatu daiteke aplikazioa doan eta, ondoren, euskarazko, frantsesezko edo gaztelaniazko ibilbidea kargatu. Ibilbidearen mapa ere bertan deskargatzeko aukera dago. Telefonorik ezean, Berako Turismo Bulegoak lau gailu jarri ditu bisitarien eskura.

Abiapuntura iritsita, entzungailuak konektatu eta aplikazioa martxan jarri besterik ez da egin behar. Telefonoak GPSa erabiliko du uneoro non zauden jakiteko. Ibilbidean dozena bat inguru audio-puntu jarri dituzte eta horietako batera iristean telefonoak bibrazio bidez eta joare-soinuz abisatuko dizu.

rrak, zehazki portugaldarrak, muga honetara. Berako hilerrian bost portugaldar omen daude ehortzita. Mugaren argi-ilunetan hori da ziurrenik alderik ilunenetakoa.

Baina gure bide-erakusleak mezu baikorraz eman dio amaiera Mugako Bideari. Behartutako banalerroari etekina atera diote. Eta eguerdi partean Ibardin bildutako jendetza ikusita, bistan da aurrerantzean ere aterako diotela. Bereizteko jarritako marrak elkartzeko baliatu dela dio Patxikuk, eta “gaueko lanak sare haundi bat egin zuela, bi aldeetako euskaldunak lotu zituena”. Hori baieztatzeko, bere azken aholkuari jarraitu diogu: “Sartu bertzenaz euskaldunak ibiltzen diren bentaren batean... sartu-sartu eta aditu”. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune parte-hartzailea.

Kaukasoko nazio txiki baten independentzia prozesua

“Independentzia, mundu globalizatu honetan gure kultura eta hizkuntza gordetzeko tresna da”. Abkhaziako atzerri ministro Viatxeslav Txirikbaren hitzak Kaukasoko txoko hartan sufritutako gerra eta zailtasunen ordainsaria azaldu gura dute. Abkhazia 1993tik da estatu burujabe, baina beste herri txiki askoren moduan, nazioarteko komunitatearen aitormenik gabe bizi da.

Testua eta argazkiak:

| IBAI TREBIÑO |

1992KO ABUZTUAREN 14A. Georgiako armadaren abiazioa Sukhum hiria bonbardatzen hasi zen, abkhaziarren memorian betiko grabatuta geratuko den unea. Hogei egun lehenago, uztailaren 23an, Abkhaziako indarrek herrialdearen independentzia aldarrikatu zuten. 13 hilabetez luzatu zen gerra irabazita, behin betiko independentzia eskuratu zuten.

Vladislav Ardzinba, Abkhaziako alderdi komunistako buru ohiak gidatu zuen garaipena eta Abkhazia independentearen lehen presidente bihurtu zen. 2010ean hil zen Ardzinba, baino errepublika txiki horretan bere ondarea ez da inoiz desagertu. Edonon topa daitezke bere irudiak, heroia da hemen. Bere gidaritzapean Abkhaziak independentzia berreskuratu zuen. Berreskuratu, Abkhaziako estatua ez baitzen ezerezetik eraiki: “Gure auzia ez da separatismoa, estatu historikoa berreskuratzeko prozesua baikik”, azaldu digu gobernuko funtzionario batek.

Abkhazia estatua eta erresuma izan zen VIII. mendean, baita printzerria ere XIII. mendean. Turkiarren (otomandarrek) eta Errusiarren arteko gerrek mende luzez baldintzatu dute abkhaziarren bizimodua. Bataren zein bestearren menpe bizi eta haien errepresioa jasan behar izan dute. 1917an, boltxebikeen



Vladislav Ardzinba Abkhazia independenteko lehen presidentearen irudiak edonon topa daitezke karriketan.

Urriko Iraultzak argi berria ekarriko zion ordea nazioari: Abkhaziako herri kontseilua sortu eta Mendietako Errepublikak sortu zuten lehenik. 1921ean sobietar boterea ezarri ondoren, Abkhaziak Errepublika Sobietar Sozialista gisa berreskuratu zuen bere independentzia, subiranotasuna eta lurraldetasuna. Ardzinba bezala, Nestor Lakoba Abkhaziako boltxebikeen buruzagiak ospe handia hartu zuen orduan.

1931ra arte iraun zuen abkhaziarren ametsak. Josif Vissarionovitx “Stalin” presidente sobietarrak Georgiako Sobietar Errepublika Sozialistan integratu zuen Abkhazia, Errepublika Sobietar Sozialista Autonomo gisa. Georgiar etniakoen kopuruak gora egin zuen errepublikan, ordura arte abkhaziar etnikoen aldekoa zen demografia guztiz irauliz. Nestor Lakoba ere “purgatua” izan zen. Veria eta Stalin georgiarren politikek abkhaziar herriaren asimilazioa ekarri zuen arren, Sobietar Batasunarekiko dagoen atxikimendua historikoa estua da eta horren seinale, esate baterako, Bigarren Mundu Gerran nazien kontrako erresistentzian parte hartu eta bizitza eman zutenen kopuru handia. Abkhazia, “sobietar heroi” gehien dituen bigarren errepublika sobietar ohia da.

Sobietar Batasunaren amaiera eta nazio eraikuntza

Sobietar Batasunaren desagertzearen prozesuak nazio txiki batzuen aldarrikapen nazionalak eta autodeterminazio prozesuak piztu zituen errepublika jaio berrietan. Hala, gutxiengo etnikoen arteko tentsioa areagotu zen, besteak beste Transnistrian, Osetian, Txetxenian eta Abkhazian.

Sozialki ere hondamendi handia izan zen eta oligarkek errekurtsioen pribatizazioari ekin zioten. Abkhaziako ekonomia ministro Adgur Ardzinbak azaldu digunez, “pribatizazioei ekin eta industria suntsitu zen SESBren kolapsoarekin batera”. “Abkhazia herrialde garatua eta askea zen Sobietar Batasunean” azaldu digu Teymuraz gazteak. Gagra hiriko alkateorde da bera eta Abkhaziako azken buruzagi komunistaren semea. Oldenburgoko



Goian, 1992an Georgiarekin izandako gudan hildakoen omenezko irudiak. Behean, fededuna eliza ortodoxoan. Abkhaziarren %60 kristau ortodoxoa da.



Pedroren ondorengo aristokratat ezagutzera eraman gaitu: “Sobietar garaietan denok bizi ginen ondo”, diote hemen ere. Harrigarria. Aristokratat, langile-klaseak, nekazariek... denek batera ekin zioten Sobietar Batasunaren defentsari, baita Abkhaziaren independentziaren alde ere.

Gerraren ondoren eta nazioarteko komunitateak herrialdearen aurka hartutako neurrien ondorioz, urte luzez isolatua egon zen Kaukasoko errepublika txikia. Errusia munduko lehen herrialdea izan zen Abkhaziaren independentzia onartzen. Hala, bien arteko merkataritzak arnasa eman dio.

Ekonomia ministroak azaldu digunez, “herrialdearen motorra turismoa da”. Azken bi udatan, 3 milioi turista baino gehiagok bisitatu dute herrialdea, gehienak errusiarak, baita Europar Batasunetik joandakoak ere –georgiarren eta EBren presioaz gaindi–, Itsaso Beltzak, Kaukasok eta salneurri merkeek erakarrita. Errusiako klase

baxuek Abkhazian uda igaro dezakete lasai asko, eta Abkhaziak hori ondo probestu du.

Bestalde, Abkhaziak “eraikuntza nazionalaren” bidea urratzen jarraitzen du. Banku nazionalak kontrolatzen ditu kapital finantzarioak eta Errubloa da moneta ofiziala, Errusiarekin egiten diren transakzioak eta harreman ekonomikoak direla eta. Parlamentu, polizia, hezkuntza eta justizia sistema propioak ere eraiki dituzte. Nazioarteko aitortpen zabala ez edukitzeak ez die arazo handirik ekarri abkhaziarrei.

Independentziaren bide latza: 1992ko gerra

Sobietar Batasunaren desintegrazio prozesua martxan zegoela, Georgiak independentzia aldarrikatu zuen eta herrialde kapitalista izatera igaro zen. 1991ko martxoan, orduko Georgiako presidentea Zviad Gamsajurdiak independentziaren aldeko erreferenduma antolatu eta irabazi egin zuen.

TERMOMETROA • ABKHAZIA

Azalera: 8.660 km koadro **Populazioa:** 242.862 (2011)

Independentzia: 1992ko uztailaren 23an aldarrikatua

Hizkuntza ofizialak: abkhazera eta errusiera

Erljioa: kristau ortodoxoak (%60), musulmanak (%16), Abkhaziar paganoak (%8), ateoak (%8), beste batzuk

Talde etnikoak/nazionalitateak: abkhaziarrak (%50), georgiarrak (%19), armeniarrek (%17), errusiarrak (%9), greziarrak (0,57%)

Moneta: Errubloa **BPG:** 500 milioi dolar



Georgiarrek gehiengoa ez zuten eskualdeetan, Abkhazian eta Hego-Osetian esaterako, erreferenduma boikotatu zuten. Estatu berrien sorrerek beste nazio txiki batzuen subiranotasun nahia piztu zuen. Abkhazia ez zen salbuespena izan, eta 1992ko uztailaren 23an aldeabakarreko independentzia aldarrikatu zuen. Horri erantzunez, 1992ko abuztuaren 14an Georgiako armadak Sujum hiriburua bonbardatu eta bi nazioen arteko gerra hasi zen.

Gerra hasi eta berehala Georgiako armadak kontrolpean hartu zituen Abkhaziako lekuri estrategikoenak. Matxinatuak herrialdearen erdialdean isolatzea lortu zuen Georgiak. Abkhaziako miliziek, herrialdeko talde etniko guztiek—georgiarrak izan ezik—osatuta, Gudauta hirian ezarri zuten hiriburua eta erresistentziaren gotorleku bilakatu zuten. Batal Dzhapua borroka horietan izan zen. Egun margolari eta artista famatua denak, Abkhaziako gerraren inguruko zehaztasunak biltzen dituen dokumentala amaitu berri du: “Independentzia lortzea latza da”, aitortu digu burumakur gerrillari ohiak. 13 hilabete luze eman zituzten Georgiako tropek inguratuta, harik eta 1993ko irailean kontraeraso arrakastatsua batekin Georgiako armada Abkhaziatik kanporatzea lortu zuten arte: “Garaipena lortu genuen, zorionez. *Aiaaaaira*”. Garaipena.

Zailtasunak zailtasun, Abkhaziako Estata

Viatxeslav Txirikba Abkhaziako atzerri ministroaren ustez independentzia “mundu globalizatu honetan gure kultura eta hizkuntza gordetzeko tresna da”. Baina kostua handia izan da. Milaka hildako eka-

rra zuen gerra eta 7 urte luze iraun zuen blokeoa, besteak beste. Georgiako muga itxita, Errusiako muga ere blokeatuta geratu zen, Boris Yeltsin presidente errusiarraren aginduz. Emakumeak eta umeak bakarrik irten zitezkeen herrialdetik eta kontrabandoaren bidez sartutako produktuei, nazioarteko erakunde humanitario gutxi batzuei edota Turkiako abkhaziar diasporak itsasoz bidalitako laguntzari esker bizi-

“Errusiaren laguntzak arnasa eman badio ere, Abkhazia aitortzeko auzia mantso doa nazioartean”

raun behar izan zuen herrialdeak. Harik eta, Vladimir Putinek hauteskundeak irabazi eta blokeo ekonomikoa bertan behera utzi zuen arte.

Abkhaziar historiaren beste kapitulu beltz bat, 2008ko abuztuaren 7an bizi izan zuten. Georgiako armadak Hego Osetiako eskualdea *de facto* independentea bonbardatu eta gau bakar batean 1.300 lagun, osetiarren %3a, hil zituen. Gertakari horrek Abkhazia-Osetia eta Georgiaren arteko 10 eguneko guda piztu zuen. Georgiako armadaren erasoan 13 soldadu errusiar ere hil ziren. Errusiak zuzenean hartu zuen parte gerran eta egun gutxitan amaitutzat eman zen.

Gerra labur horrek Errusiaren erantzun politiko eta diplomatikoa ere ekarri zuen eta abuztuaren 26an Errusiar Federazioak formalki aitortu zuen Abkhaziaren zein Hego-Osetiaren independentzia. Aurrerapauso historikoa izan zen

16 urte luzez aitortpenik gabe bizi- raun zuen errepublika horientzat.

Errusiaz gain, 2008ko irailean Nikaraguak, Daniel Ortega gerrillari sandinista ohiaren ahotik, Abkhaziaren independentzia aitortu zuen. Baita Venezuelak ere, Hugo Chavez presidentearen bidez, 2009an Moskura egindako bidaietan. Asia-Pazifikoko eskualdeko hiru estatu txikiak (Nauruk, Vanuatuk eta Tuvaluk) ere aintzat hartu dute herrialdearen independentzia, eta horiekin batera, Abkhaziaren egoera berdinean dauden beste eskualde *de facto* independenteek: Nagorno Karabaj, Transnistria eta Hego Osetiak, esaterako.

Errusiaren laguntzak arnasa eman badio ere, Abkhaziaren aitortpenaren auzia mantso doa nazioartean. Atzerri ministroak argi dauka: “Brusela- ren eta AEBen presioengatik ez balitz, herrialde gehiagok onartuko lukete gure independentzia”. Kosovo ez bezala, munduko nazio txikiak nazioarteko aitortpenik gabe eta inperioaren mehatxupean bizitzera kondenaturik daudela erakusten du Abkhaziaren aferak. Gaur Abkhazia eta bihar Katalunia. Zer etorkizun munduko nazio txikientzat? ■



Etxearen alokairua lan sozialaren ordainetan

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |



Etxebizitza solidarioa

Helburua: San Frantzisko eta Otxarkoaga auzoetan bizilagunekin lan soziala egitearen truke etxebizitzaren alokairua 55 euro.

Antolatzaileak: Bilboko Udala eta Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateak.

Norentzat: Graduondoko ikasleentzat.



INIGO AZKONA

Davide Angelillik etxebizitza solidarioaren programan parte hartu du eta kritiko azaldu da: bere ustez lanaren truke etxea eskuratzea ona da, baina helburu orokorragoak izanez gero, eta hau ikasurterako beka moduan ikusten du gehiago.

BILBI PLAZA. Arratsaldeko lau eta erdiak. Bazkal osteko kafearen gonbitea onartu digu Davide Angelilli 24 urteko gazteak. San Frantziskoren bihotzean pasa zuen lehengo urtea gazte italiarrak. Masterra egitera etorri zen Erromatik Bilbora, eta etxebizitza solidarioaren programan sartu zen. Auzoko kultur eta kirol taldeen koordinazioan lagunduta etxebizitzaren hilabeteko alokairua 55 euro. Angelillik garbi du 55 euro horiek erakarri zutela programara hasiera batean, gero auzoak dirua baino zerbait gehiago eman bazion ere.

San Frantzisko auzoaren magalean dagoen plazako tabernan, kati-luak eskuan, joan-etorrian ikusten dugu jendea; eta ez dago gehiago mugitu beharrik usaintzeko karrika horietako egunerokotasuna, etxe bakoitzeko jatorria, hizkuntza, kultura... eta estatusa. Tartean pare bat lagun taldek ere egin die diosala Angelilliri, eta “horiek futbol taldeen aritzen dira” edo “horiek elkartean lan egiten dute” bezalako azalpenak ematen dizkigu. Garrantzitsua ikusten du auzotar horiek lan egitea. Programak gazteei etxe-

bizitza eskuragarri bat eskaintzeaz gain, Bilboko auzo honetako herri-tarrekin integrazio lanketa egitea du asmo. Ertzak asko dira, ordea, eremu hauetan. Angelilli, programari inportantziarik kendu gabe, kritiko ere agertu da zenbait momentutan. Ikasurte baterako diru-laguntza edo beka moduan ikusten du gehiago, eta ez du nabaritu egoerari benetako konponbidea bilatzeko intentziorik.

Lanaren truke etxea eskuratzearena ideia ona da, baldin eta aldaketak helburu orokorrak baditu; txikitik ekin baina handian eragiteko asmorik badago. Oraingoz Bilboko Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateetako graduondoko berrogeita bost ikaslerentzako programa da, kurtso amaierako iraungitze-data duena. Eta lan sozialari dagokionez, karitate hitza darabil usu. Dio, karitatea baino zerbait gehiago behar dela benetako integrazioa lortu nahi bada; karitatea laguntzeko pauso bat dela; baina beti mantenduz gizarte mailaketa eta botere harremanak.

Hipster-ak auzoa girtzen

Kafea ordainduta –horretarako txanpon batzuk izaten ditugu oraingoz prekariook ere– San Frantziskoko kaleetan gora abiatzearekin batera begiztatu ditugu lehen lokal *hipsterak*. Urte gutxian aldaketa handiak jasaten ari da auzoa. Betiko tabernak itxi eta kafetegi, pub *chic*-agoak ugaritzen ari dira. Modan dago. Eta jarrera argia da: auzo “konfliktiboa” modernizatu nahi dute. Eta modan dagoenak gehiago balio du. Ikasleak ere amu ederra dira horretarako. Geroz eta gehiago dira unibertsitateko ikasketak egiten ari direla San Frantzisko bizileku hautatzen dutenak. Auzoko alokairuak gora. Eta Angelilliri eta bioi ez zaigu kasualitatea iruditzen etxebizitza solidarioen programa ere bertan egitea. Ikasleak auzora gerturatuta beste maila bat hartzen dute kaleek.

Kalean daudenek, baina, beste leku baztertuago batera mugitzen hasi beharko dute. ■

Orotariko euskaldunak lotu ditu sareko mintzapraktikak

Bi pertsona, bakoitza bere ordenagailuaren aurrean, ez dute elkar ezagutzen eta kosta egiten zaie elkarrikitza luze bat mantentzea. Euskara dute lotura, batek praktikatzea eta besteak ikasten ari denari laguntzea. Munduaren alde banatan daude baina Mintzanet proiektuak ezagutarazi eta batu ditu. Hurrengo astean berriro “elkartuko” dira, konfiantza gehiagorekin hartaz eta honetaz mintzapraktika egiteko.

| IURE EIZAGIRRE |

DUELA HAINBAT URTE martxan jarri eta hain arrakastatsua izan den Mintzalagun proiektua (lekuaren arabera Berbalaguna, Berbalapiko, Mintzakide... deitua) abiapuntutzat hartuta sortu zen Mintzanet 2012. urtean. Zein berritasun ekarri zuen? Bada, mintzapraktika saioak internetez egitea, hau da, espazio fisiko berean egon beharrik gabe eta taldean batu beharrean –Mintzalagun egin ohi den moduan– elkarriketak bakarkakoak izatea.

Horri esker, Argentinan dagoen euskaldunak Portugaleten dagoenarekin hitz egin dezake eta Adunan dagoenak Uztaritzen dagoenarekin. Webcamera eta ordenagailua edo mugikorra, eta “bidelagun” eta “bidelari” izateko gogoia besterik ez dute behar. Horrela bereizten dira Mintzaneteko erabiltzaileak: bidelariak euskara praktikatu nahi dutenak dira eta bidelagunak hauei laguntzen dietenak. Lehenengoi A2 edo B1 maila eskatzen zaie euskaraz elkarriketa bermatu ahal izateko; bidelagunei dagokienez, “ez da gramatikarik edo hitzak nola idazten diren jakin behar”, dio Ainara Loiarre programako koordinatzaileak.

Erabiltzaileek emandako datuen bidez egiten dituzte bidelagun eta bidelari bikoteak: “Normalean bakoitzak aukeratutako ordua eta

eguna hartzen dira kontuan, baita adina ere kasu gehienetan”.

Erabiltzaile ugari

Esan bezala, duela hiru urte sortu zen proiektua, Donostiako Udalak Maramara taldeari Mintzalagunen sareko bertsioa egiteko eskatu zionean. Ordutik 800 pertsona inguru eman dute izena eta gaur egun 300 erabiltzaile inguru dira. “Iaz, esaterako 2.500 saio egin ziren Mintzaneten bidez eta zenbakiak hazten ari dira”, zehaztu du Loiarrek.

Hauek dira gaur egun dituzten datuak: erabiltzaileen %65,26 dira EAekoak (%37,01 Bizkaikoak, %6,49 Arabakoak eta %56,49 Gipuzkoakoak); %4,24 Nafarroakoak; %5,08 Ipar Euskal Herrikoak; %5,51 Espainiakoak eta %19,91 beste atzerrietakoak. Emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino, %59,32 lehenengoak eta %40,67 bigarrenengoak.

Proiektuarekin bat egiteko arrazoiak hainbat izan daitezke baina astean behin gelditzeko astirik eza, ordutegi arraroa izatea, atzerrian edo inguru ez euskaldunean bizitzea edo etxetik aritzea erosoagoa iruditzea aipatu ditu Loiarrek.

Adina ere ez da muga

Arduradunek diotenez, “adinak ez du mugarik” eta Mintzaneten 17 eta

89 urte bitarteko pertsonak hartzen dute parte. Azken hilabeteetan adinekoen egoitzatan aurkitu dituzte bidelagunak: “Azpeitian proiektua aurkeztu genuenean bertako egoitzakoek esan ziguten ea zer irudituko litzaigukeen bi egoiliar parte hartzen hastea. Ideia ona iruditu zitzaigun eta aurrera jarraitu genuen”.

Ordutik beste hainbat lekutan jarri dute martxan egitasmoa: Donostiako Zorroaga, Berra eta Villa Sacramenton; Hernaniko Santa Maria Magdalenan, Errenterriko Jesusen Bihotzan eta Bergaroko Mizpirualden. “Gure adinekoek euren denbora eskaini dezakete besteei euskara praktikatzeko laguntzeko eta bide batez, eurentzat ere parte hartzea baikorra dela iruditzen zaigu, leiho zabal bat irekitzen baitzaie eta dauden lekutik mugitzeko beharrik gabe gainera”, azaldu du Loiarrek.

Beste erakunde batzuekin ere baditu hitzarmenak Mintzanetek, hala nola, Euskal Herriko Unibertsitatea, Etxepare Institutua, Topagunea, AEK eta abarrekin. Hortik ere lortzen dituzte erabiltzaileak eta aurrerantzean bidelariak eta batik batik bidelagunak lortzea izango da haien helburua, jendea itxaron zerrendan baitago bidelagunen bat aurkitu zain. ■

Maddalen Antuñano bidelaguna

«Bidelariak duten motibazioa da egitasmo hau aurrera daramana»



LANTZEN ARI ZEN proiektu pedagogiko bati esker ezagutu zuen Mintzanet Maddalen Antuñano portu-galetetarrak. “Proiektua euskararen irakaskuntzara bideratua zegoen eta ahozkotasanari garrantzia eman nahi nion”, dio. Egitasmoa ezagutzen joan ahala “oso interesgarria eta beharrezkoa” iruditu zitzaion euskara teknikari lanetan hasi berri den 23 urteko gazteari.


“Euskara praktikatu eta hobetu nahi duten pertsoneri laguntzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Bidelariak duten motibazioa da egitasmo hau aurrera daramana eta Mintzaneten parte txiki bat izatea nahikoa da motibazio hori elikatzeko eta euskarari pixkanaka-pixkanaka indarra emateko”, dio. 2015eko martxoan hasi zenetik bidelari berarekin aritu da: “Hilean birritan

konektatzen gara ordubeteko elkarriketa izateko”.

Euskara praktikatzeko erraztasun asko ematen dituela iritzi eta aurrerapen handitzat du Mintzanet. “Hezkuntza formaletik at, hainbat gai jorratzeko aukera ematen du, ahozkotasuna bereziki landuz”, gaineratu du. Baina ez hori bakarrik, “euskara aitzakia izanik, harreman berriak sortzeko aukera ere ematen du”.

Maria Cecilia Cenoz bidelagun eta bidelaria

«Nire asmoa bidelari izatea zen baina momentu hartan ez zegoen nire ordutegian bidelagunik»



ARGENTINAN, Buenos Aires probintziako Tandil herrian jaioa da Maria Cecilia Cenoz informatikaria. Aitona zuen euskalduna, Nafarroako Muskitz herrikoa, eta haren hizkuntza zelako hasi zen euskara ikasten Tandilgo euskal etxean. “Gero *online* kurso batean jarraitu nuen eta azkenean Maizpide euskaltegian sei hilabete pasa ondoren 2. mailako azterketa gainditu nuen”.

Bere ikaskideekin egiten zuen euskaraz, baita euskal etxean ematen zituen klaseetan ere. Gaur egun *Euskara munduan* programako tutore da eta horrek eman dio euskaraz aritzeko aukera, “baina Mintzaneten parte hartzea desberdina da,

webgune honetan nire euskara hobetzen dut bidelari eta bidelagunekin”.

2013an hartu zuen parte lehen aldiz proiektuan: “Nire asmoa bidelari izatea zen baina momentu hartan ez zegoen nire ordutegian bidelagunik, beraz, bidelagun izaten hasi nintzen. Lehenengo mintzakidea Lourdes Erquicia izan zen eta oraindik jarraitzen dugu saioak egiten”. Hiru bidelariarekin aritzen da, batekin astean bitan eta beste biek astean behin. Eta hasieran ezin izan zuena lortu berri du: hilean behin bera izango da bidelari.

Eguneroko gaiez aparte, euskarari buruz hitz egiten dute. “Norma-

lean Euskal Herriko jendea irarria iruditzen zaio nire eta diasporaren kasua”, dio. Eta aldi berean, hemengoarekin jakin-mina auzatzen du: “Horko jendearekin harremanetan jartzea oso interesgarria da guretzat Euskal Herriko berriak jasotzeko, eta gure arbasoen idiosinkrasia ezagutu eta nor garen jakiteko”. Bertakotu egiten ditu Mintzanetek: “Hor egotearen sententzia ematen dit. Ez dakit nola esan baina bi herriren artean bizi naiz. Txikitatik beti esaten dut euskalduna naizela eta orain gero eta gehiago, euskara hitz egiteagatik ez dago zalantzarik euskalduna sentitzen naizela”.

Raul Alfaro bidelaria

«Euskaraz mintzatzeko oso aukera gutxi nuen herrian, horregatik animatu nintzen»



Ione Forcada bidelaguna eta Raul Alfaro bidelaria Donostian elkartu zirenean ateratako argazkian.

NAFARROAKO Zarrakaztelu herrikoa da Raul Alfaro eta herriko kooperatiban egiten du lan. Ez du zehaztasunez gogoratzen noiz hasi zen Mintzanet proiektuan baina ia hasiera izango zela dio, “orain dela bi urte eta erdi edo”.

“Irakasle bati esker ezagutu nuen proiektua. Nire herrian euskaltegirik ez dagoenez, Tafallan (etxetik ordu erdira autoz) hasi nintzen ikasten. Taldea desagertu zenez, Orbaibarren –urrunago– hasi nintzen eta hau ere desagertu zenez, autoikas-

kuntzarekin hasi nintzen”, azaldu du. Orbaibarren eta autoikaskuntzan irakasle bera izan zuen eta hark gomendatu zion Mintzaneten parte hartzea. “Euskaraz mintzatzeko oso aukera gutxi nuen herrian, horregatik animatu nintzen. Webcam-a espresuki erosi nuen”, dio.

Mintzanet interneten euskaraz aritzeko falta zen proiektua da berarentzat. “Euskara ikasteko kilometro asko egin ditut dirutza ordainduz. Orain, Mintzaneti esker, etxetik eta dohainik egin ahal dut”.

Hasieran astean bitan hitz egiten zuen bere bidelagunarekin eta gaur egun astean behin. Harekin duen harremana goraiatu du Alfaro: “Oso polita eta berezia da. Aurrez aurre ezagutzen dugu elkar eta oso hunkigarriak izan dira gure topaketak. Bi topaketa egin ditugu eta biak ederrak. Zaila da azaltzea zer sentitzen den, bizi behar da”.

Alexander Ezeiza bidelaguna

«Jendeari hitz egiten laguntzeko hasi nintzen, euskaraz egiteko aukera izan dezaten»



Alexander Ezeiza Donostiako Zorroagako adinekoen egoitzan bizi da eta handik aritzen da Murgiako bidelariarekin berriketan.

BESTE BIDE BATZUETATIK baina Alexander Ezeiza berak ere euskara ikasi behar izan du. Ikasi baino, berrikasi. 86 urte ditu eta hauetako ia 60 Amerikako Estatu Batuetan pasa ditu: “Joan nintzen 1945ean eta etorri nintzen 2004an, ia 2005ean”. Han euskaldunak baziren garai hartan, “ezagutu nuen Lapurdiko bat, Nevadan artzaina izana. Gure euskarak berdintsuak dira baina ez ginen oso ondo ulertzen. Eta nik batere irakurri gabe, ez aldizkaririk ez libururik, dena

ahaztu nuen”, azaldu du.

Beizamakoa da jaiotzez baina egun Donostiako Zorroaga zentron bizi da. Kaputxinoa zela lagun errenteriar bat egin zuen –Xalbador Zapirain– eta Ameriketatik itzultzean hartaz galdetu zuen. Hila zela esan zioten ordea. “Liburu asko idatzi zituela esan zidaten, liburutegian bilatu nituen eta denak irakurri euskara ikasteko”.

Gaur egun bera da ordenagailuaren aurrean jarri eta besteek laguntzen diena: “Hasi nintzen jendeari

laguntzeko hitz egiten, aukera izateko euskaraz hitz egiteko. Eta nik ere bai”. Murgiakoa du bidelaria eta astean behin hitz egiten dute. “Hark euskaraz ederki egiten du, ze orain euskara ikasten dute eskoletan baina ez dute hitz egiten kalean eta etxean. Gure denboran dena euskaraz egiten genuen”.

Euskara sektorea EAEko Barne Produktu Gordinarenean %4,2 da

BPGAREN %4,2 osatzen du euskarak; enpleguen %6,3 eta Balio Erantsi Gordinarenean %4,5. Lehenengo aldia da euskararen munduaren pisu ekonomikoa neurtzeko ikerketa egiten dela. Europan ere ez dago halakorik.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bideratu du euskararen munduaren pisu ekonomikoa neurtzeko ikerketa. HPSren ustez, ikerketak garbi utzi du euskara euskal ekonomiaren jardura-sektore bat gehiago dela. Enpleguari begiratzen badiogu, 56.142 langile ari dira euskararen sektorean. 42.724 lanpostu dira zuzenekoak, 3.748 zeharkakoak eta 9.670 induzituak.

Barne Produktu Gordinarenean %4,2 biltzen du eta eurotan emanda, 2.800 milioi. Balio Erantsiaren Gaineko Zergari (BEZ) dagokionez, 156.933 euro biltzen dira zerga bidez eta diru-laguntzetan sektoreak 107.392 euro jasotzen ditu. Beraz, 49.541 euroko saldo positiboa egiten du.

Ikerketak EAEko Barne Produktu Gordinean beste sektore batzuek duten eragina ere jasotzen du, euskara sektorearekin alderaketak egin ahal izateko. Ehuneko handienetik txikienera ondokoa da zerrenda: osasuna %8,8; turismoa %5,8; hezkuntza %5,5; euskara %4,2; I+G+B %2,1.

Patxi Baztarrিকা HPSko sailburuordeak hizkuntza gutxiagotuen balio ekonomikoz dauden aurreiritziak aipatu zituen ikerketaren aurkezpenean eta ondoko gogoeta egin zuen: “Euskara, adibidez, Interneten nabigatzeko erabiltzen diren hizkuntzen artean 44.a da, Twitterren erabiltzen diren 33 hizkuntzen artean dago, Wikipedian 34.a da eta Europar Batasuneko 10 Estatu hizkuntzatan baino artikulua gehiago daude euskaraz hor, Wikipedian. Baina, hala ere, kuestionatu egiten da bere balio ekonomikoa. Balio ekonomikoa duten hizkuntza efika-

EUSKARA %4,2

OSASUNA %8,8

HEZKUNTZA %5,5

TURISMOA %5,8

I+G+B %2,1

zen eta baliagarriak ez diren hizkuntzen –kultur ondare huts diren hizkuntzen– arteko bereizketaren aurrean gaude. Horregatik -eta hau gauza berria da gurean- ikerketa egin dugu euskarak Barne Produktu Gordinean (BPG), Balio Erantsi Gordinean eta enpleguan duen eragin ekonomikoa buruz. Ikerketaren emaitzak agerian jartzen du, argi eta garbi, euskarak gure gizartearen sare ekonomikoan duen garrantzia, eta lagungarria da, euskararen eragingarritasun eta baliagarritasun ekonomikoa zalantzan jartzen –edo ukatzen– duen aurreiritzia desintegratzeko”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Banpiro kapitalistek nazio subiranotasuna bahituta dute

MUNDU OSOAN ARI DIRA TPP edo Pazifiko arteko Kooperazio Ekonomikorako Itunaren kontra mobilizatzen, baita Europan eta Euskal Herrian ere. Itun hori ezkutuan egiten ari dira AEBen eta Pazifikoko beste hamaika herrialderen artean –Txiletik Zeelanda Berriraino–, eta herrialde bakoitzak onartu beharko du. Munduko biztanleriaren %11 hartuko lukeen merkatu bakarra sortuko litzateke, munduko BPGaren %40 izango luke, merkataritza globalaren %25 eta atzerriko inbertsio zuzenaren %32. Ituna onartzen bada, merkatuek –multinazionalak eta korporazio handiek– herrien subiranotasuna bahitzea lortu duten seinale izango da. Gobernuak merkatuen kudeatzaile ofizial baino ez dira izango. Ituna aurrera ateraz gero, Europak bide bera urra dezake, AEBekin TTIPa (Europa eta AEBren Arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmenaren ingelesezko akronimoa) ari baita negoziatzen.

Herrialdeen etorkizuna jokoan da. Nork aginduko du, herritarrek aukeratutako pertsonak ala banpiro

kapitalistek? Adibide batzuk jarriko ditugu. Inolako muga legalik gabe deslokalizatzeak inposatu ditzakete, enpresak itxi eta enplegua ezabatu. Herrialde batek gai toxikoak edo jangai transgenikoen etiketak debekatzen baditu eta ingurumen araudia zorrozten badu, TPPak enpresei boterea emango die gobernuak ezkutuko tribunal baten aurrean salatzeke, epaileak merkatuei lotuta daudela jakinik ere. Gobernuak epaiketa hori galtzen badu, zergadunek ordaindu beharko diete enpresei “etekineta” galdutako milaka milioi euro. TPPrekin farmazia-industria erraldoiak bere monopolioa hainbesteraino hedatu dezake, kantzerretik edota hiesetik salbatzeko oinarritzko botiketara sarbidea mugaturik izango dutela gaixoek.

TPPrekin kontra mobilizatu eta borrokatzea funtsezkoa da, Europak haren lortatza segi dezala saihesteko, ez dezagun gure nazio subiranotasuna banpiro kapitalista horien esku utzi.

Juan Mari Arregi

Baratze bat nahi dizut egin Siria setiatu honetan

Gosea ere bada gerrarako arma. Sirian, Bashar al-Assaden errepresio basatia batetik eta haren kontrako klase askotako gerlarrien bortizkeria bestetik, setioaren erdian bizirauteko baratze batek zenbat balio dezakeen ikasi du siriarrak.

Europatik baratzezainek haziak bidaltzen dizkiete, nekazaritzaren sehaska izandako Sirian falta direlako.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

TOMAS ALCOVERRO KAZETARIAK, Ekialde Hurbiletik kronikarik mamitsuenak bidaltzen dituenak, idatzi du: “Siriako gerra bere izugarrikeria guztiekin atek itxian ari da gertatzen. (...) Urte odoltsuak pasa behar izan dute pixkanaka azaltzen hasi arte zein konplexua den gerra hau, Siria eta Ekialde Hurbilarentzako hil ala bizikoa, Daesh edo Estatu Islamiarraren indar militar eta ideologikoa dela medio nazioartean ondorio mehatxugarriak dakartzana”.

Gerrarik gupidagabeena sufritzen ari diren siriarreri Europatik guk zertan lagundu, triskantzatik ihesi datozeinei ongi etorria egiteaz edo errefuxiatu zelaian ari diren GKEei dirua emateaz landa? Setiopean dirautenei haziak bidaltzen saiatzen dira nekazari eta ekintzaile batzuk.

Reporterre hedabidean kontatu dute Zoe eta Ferdinand Beau nebarreben elkartasun ahalegina, “*Graines et Cinema*” deitua. Herriz herri doaz beren dokumental bat erakutsiz eta hurbiltzen zaizkien baserri-tar zein kaletarrei eskatuz barazkien haziak Siriara bidaltzeko.

2014an sei hilabete eman zuten Beirut ondoko Chatilla errefuxiatu gunean. Israelen babesean falangista libanoarrek bertan babestutako palestinarrekin egin masakreakatik

munduan famatua den Chatillan gaur egun palestinar gutxiren ondoren siriarrak iheslari asko bizi dira. Chatillako eraikinen teilatuetan aritu ziren Zoe eta Ferdinand hiri baratzeak antolatzen eta bertan aterpetuek kontaturik ohartu ziren Sirian zein latza den gaur hazirik eskuratu ezina.

Europara itzulita, Beau nebarrebe Frantziako hegoaldeko 17 departamendu korritu dituzte beren kamionetarekin hitzaldiak emanez. Confederation Paysanne sindikatuak –ELB euskalduna barne daukanak– eta Semences Paysannes hazi elkarteak lagundu diete. Ehun-ka kilo batu dituzte orain artean eta ametsa lukete Frantziako hazigileen eta Siriako baratzezainen artean elkartasun sare bat finkatzea.

Siriako hiri suntsituetan nozitzen den hazirik ezaz europarrak lehenbizikoz 15th Garden elkarteak ohartarazi zituen gerra eremuetatik 2013an. Lehenbiziko erantzunak Alemaniatik eta Greziatik jaso zituzten.

Siria izan baitzen Neolitoan nekazaritza sortu zeneko gune nagusia, bertako hazien balio genetikoa asko nabarmendu da prentsan. Alepoko hazi altxorra deseginik, nazioartean deiak entzun dira hango hazien *kopiak* ongi zaindu daitezkeen. Norwegian Svalbardeko biltegiak direnetik berreskuratu eta

Lens Young Yeldanik Al Jazeeraarentzako egindako argazkian (handia) baratze bat Damaskoko Yarmouk auzoan: etxebizitza askoko eraikin bateko terrazako zoruan elkarren ondoan landareak, hazientzako ontziak, ura gordetzeko andelak eta baita satelite bidezko telebisten antena parabolikoak ere. Marine Vlahovick *Reporterren* argitaratutako argazkian (txikia) Ferdinand eta Zoe Beau neba-arrebak. 27 eta 23 urteko gazteek barazkien haziak biltzen dituzte herriz herri Siriara bidaltzeko: Alepora, Kobanera, Deraara, Yarmoukera... Kexu dira Europako katalogo ofizialean onartu gabeko haziei pasabidea ixten dietelako aduanetan, hain zuzen antzinako hazi horiek izanik hain baldintza zailetan ere behar dituzten ortuzaintzako: “Lotsagarria, jakin badakigunean zibilizazioa sortu dela landareen haziak batetik bestera eramatearen poderioz”. 500 kilo itsasontziz eramateko prestatzen ari dira.

kopiatu beharra ere aipatu da.

Beau anai-arrebak, ordea, herri-tarren goseak ditu kezkatzen. Neurri batean bederen ase ahal izateko, historian gerra guztietan gertatu den moduan, erresistentziako baratze txikiak lantzen dituzte. Baina hazi egokiak behar dituzte, multinazionalen hibridoak baino hobe munduan zehar nekazariak zainduta hazi zahar indartsuak.

Bildutako haziak Libano eta Turkian barrena pasarazten dituzte Beutarrek, batzuetan bidaiariek eramanik, sarritan iheslarien eta kontrabandisten bidez.

Zoek kazetariari esan dionez, “inportantea da hemengo jendeari erakustea gerra eremuetan bizirautean dutenak irudimenez ari direla ahalegintzen eta gatazka honetaz mintzatu gaitezkeela geopolitikariek eta tragediazkoak ez diren beselako neurrietan”.

Gosetea, gerrako iskila

“Damaskoko Yarmouk auzune desesperatuan barazkiak haztea hil ala biziko kontua da” idatzi du maiatzean Annia Ciezadok Al Jazeeraen webgunean “*A garden grows amid the daily dangers of a siege in Syria*” titulua daraman kronikan.

Ciezadok kontaktu duenez, apirilean auzunea beren kontrolpean hartu zutenean Daesh Estatu Isla-

◦ TERMOMETROA



negurako, ordea, auzotarrek eskarmentua hartu eta barazkiak lantze-ari ekina zioten. Herri mugimendu sare aberatsaren jabe izana den Yarmouken, boluntario taldeak lugin-tzan hasi ziren.

Kaletarrak izaki, baserrietatik gerrak eta lehortek ekarri miseriari ihesi iritsitakoekin ikasi behar izan dute. Hazi eta landare aukerarik gabe, lehenbizikoetan kale egiten zuten. Edo inguruko gosetiek ebas-tzen zieten uzta heldu aurretik. Gehi armadako frankotiratzaileek eraso-tzen terrazetan eginez gero baraz-tzeak. Engoitik ikasi dute ortu txi-kiak lantzen karrika bazterretan, bonbek lehertutako eraikinetan, patioetan...

2015eko apirilean Daesh Estatu Islamiarrak hartu du Yarmouken kontrola. Aurretik gogor borrokatu zituen Hamasen inguruko miliziak, hauek aldi berean Bashar Al-Assa-den kontra ere gerran ari zirela. Gudu nahasi horretatik ihesi alde egin dute 4.000 jendeak auzunetik. Armadak bezala islamistek hil dituzte auzoko mugimendu herritarren liderrak.

Damaskoko gobernuak gerrako armatzat erabili du herritarrak barne dituela hiri osoak blokatu eta elikadurarik gabe uztea. Gauza bera egin dute beste aldetik Estatu Isla-mikoak eta Al Nusrak.

Baina gosea siriarentzako ez da setiopean bizi direnen afera soilik. Lehortek estreina eta gerrak gero, Siriari elikadura sarea suntsitu diote. Hiri masakratuetan bezala errefuxiatuen kanpalekuetan baraz-tze txiki bakoitza da bizirauteko esperantza bat. ■

miarrak eta Al Nusra fronteak, mendean hartu zituzten aurreko bi urteetan Bashar Al-Assaden armadak setiatuak edukitako zibilak. 18.000 jende 2012ko abendutik eraikin birrinduetan artean bizitzen, gehienetan argindarrik eta gasolinarik gabe, 2014tik iturriko ura etenda. Azkenean apaiz musulman batek baimendu zien harrapatutako asto, katu eta zakurrak jatea.

Iheslari palestinarrentzako antolatutako auzunean urteotan gerrak etxetik kanpo ihes arazitako siriarrak pilatzen dira: “Setiatuak, lehenik erregimenak eta orain matxinoek, Yarmoukeko zibil ahaztuek borrokatu behar izan dute gosea den arma mediebalaren kontra erabiliz umorea, kreatibitatea eta

oinezko herritarren erresistentziako azken estrategia: barazteak”.

2011ko martxoan hasirik Al-Assaden kontrako matxinada, berehala agertu ziren lehen errefuxiatuak Yarmoukera. Auzoan indarra hartu zuten Siriako Armada Libreko gerrillariak eta borrokan hasi gobernuaren militarren kontra. Al-Assaden MIG hegazkinak bonbardatu zuten auzoa eta setioa ezarri.

Soldaduek kontrol ez izten zuten eta dute auzunea. Hasieran egun pare baterako, gero lau egun edo aste baterako. Ezin pasa kilo bat janari baino gehiago. 2013ko uztailaren 21ean armadak erabat blokatu zuten Yarmouk.

Lehenbiziko negu hartan goseak hildako jendea ere izan zen. 2014ko

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Colau, berriz ezustekoa

ARTUR MASEK ondo menperatzen du tempus politikoa eta batez ere hauen taularatzea, Kataluniako Justizia Auzitegi Gorenean deklaratu beharrak erakutsi duen eran. Jauregirako hurbilketa ikusgarria izan zen, Kataluniako gehiengo soberanista Espainiako Justiziaren aurrean deklaratzera; baina irudia gogoangarria izango da, hark batez ere Kataluniako “orden mundua” ordezkatzeko duelako eta hango prozesua zein urrutiti den islatzen duelako. Deklaratu ondoren zera galdetu zioten Masi: “Inhabilitatuz gero onartuko duzu epaia?”. Erantzuna: “Herrialdeak une horretan bizi duen unearen arabera izango da hori”. Orain arte, Estatuan autonomia bateko lehendakari batek inoiz ez du zalantzan jarri izan Espainiako legea beteko zuenik.

Egia esan, marra gorria 2014ko azaroaren 9an zeharkatu zen, baina urriaren 15ekoa lurrikara haren erreplika indartsuena izan da, besteak beste, Mas apurketa demokratikoaren sinbolo bihurtu zelako. Ez gehiago ez gutxiago, baina oraingoz hori bai. Kataluniako nazioa eta Espainia aurrez aurre. Marra gorria iragan dela irudikatu zen berriz argazki haiekin, eta oraingoz alde biak atera dira indartuta, baina independentismoa etxean eta Espainiako Justizia Espainian. Katalunian, beraz, Espainiak galtzen jarraitzen du.

Apurketa demokratikoa, bai, hori da doinu nagusia Katalunian, independentzia prozesua gidatu behar duen gobernu eraketaren bezperan. Inork gutxi jartzen baitu zalantzan JxSí eta CUP adostasunera iritsiko direla prozesua-

ren bide orrian. Ekainean Nafarroan sentitzen zen gisara, bestela herritarrek itsasora botako dituztelako.

Akordioa nola, ostera? Dena dago airean, baina oraingoz pertsonak –Mas– negoziaketaren amaierarako geratu dira. Aurretik hiru esparru garrantzitsuren oinarriak finkatuko dira CUPEk hala behartuta: Espainiaren desobediencia; pobrezia eta desberdintasunen aurkako talka plana; eta prozesu konstituziogilea. Bitartean, presioak latzak dira eta norabide askotarikoak. Hor ere kokatu behar da Masen azken taularatzea.

ESPAINIAKO HAUTESKUNDE orokorrak gehitu behar zaizkio Kataluniako barne egoerari. JxSí Espainiako orokorretara eramateko tematua dago CDC eta ERC bere nortasuna azpimarratzeko premia bizian. CUPEk paso egingo du hauteskunde orokorrez.

Mas apurketa demokratikoaren sinbolo bihurtu zen; ez gehiago ez gutxiago, baina oraingoz hori bai

Berrikuntza hirugarren esparrutik dator, soberanismo ezkerriar ez independentistatik. Bere jokaldia borobildu nahian Ada Colauk Barcelona En Comú erdua Espainiako hauteskundeetara aurkeztuko dela iragarri du. ICV, Podem eta Procés Constituent zutoinen gainean eraiki zen Colaren arrakasta udal hauteskundeetan eta orain ere emaitza oparoak izan ditzake, areago CUP lehiakide ez badu, eta batez ere Espainian Podemos eta IUk lortu ez duten herri batasuna saltzen duelako.

Oraindik dena airean da, baina gaitza da Colaren esperimendua Kataluniatik harago hedatzea, ez bada Galizian edo Valentzian. Hego Euskal Herrian bederen, tren hori hartara inor igo gabe pasatu da. Harrigarrietakoa zera izan da: hautagaitza bateratua sortzeko prestuen EH Bildu bera zela.

Ezkerreko sektore abertzale eta ez abertzaleak batzeko bi saio xume joratu dira, EAEn uda aurretik eta uda ondoren Nafarroan, eta biek egin dute porrot, baina seguruenik ez dira alferrikakoak izan, etorkizunean ezkerreko hautagaitza zabalak eratzeko hausnarketaren hazia erein dutelako hainbat sektoretan. Euskal lurretan, alabaina, halako edozein aliantza eraginkorrek EH Bildu ere konfiantza hartu behar du, eta gaur gaurkoz gatazkaren eragina oraindik hurbilegi dagoela dirudi, batez ere EAEn. Aurkari komunaren aurkako borroka bestelakoa lortu du Nafarroan eta EH Bildu, Ahal Dugu eta NEB elkarrekin ari dira foru gobernuan.

EZTABAIDA, alabaina, siglak batu eta herri batasunetik haragokoa da ezkerrean munduan eta Podemosek Espainian arrakasta izan ala ez, saihestezina; euskal ezkerrean behintzat gero eta indar handiagoz dator. Zera da muina: eraginkorra ote da hegemonia instituzionala eskuratzeko, alde aurretik gizarte sektore zabalak aldaketa sozialaren ideia eta praxietan trebatu barik? Klasi-ko bat da ezkerrean, baina datozen hilabeteetan ikusiko den moduan, hausnarketa gero eta indar handiagoz ari da plazaratzen eztabaida politikora. ■

elikadura burujabetza

INDEPENDENTZIA

ingurumena

oroimen historikoa

PAREKIDETASUNA

giza eskubideen defentsa

EUSKALZALETASUNA

demokrazia zuzena

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

herrien mundua

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

sexu askapena

ARGIA

ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIAren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleho izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

URRIKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babes eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu:

IRAILEKO SARITUAK

BIZI BARATZEA LIBURUA

MAITANE IZAGIRRE ZUBIMENDI (GASTEIZ)
OSTOLAZA UDAL LIBURUTEGIA (DEBA)
XABI TERREROS GARTZIA (IRUÑEA)
PILI IKAZURIAGA MUNIATEGI (LEIOA)
ASIER ALVAREZ DE EULATE MUJIKIA (ORDIZIA)

EUROPAKO HERRIEN MAPA

IÑAKI AURREKOETXEA ARKOTXA (GERNIKA-LUMO)
IORITZ IGLESIAS URKIA (GASTEIZ)
JON GOTI MENDIOLA (USANSOLO)
JONE SANTAMARIA AZPIRI (DONOSTIA)
IRUNE ITURBE ARRIOLA (ARETXABALETA)

ARGIAKO KAMIXETA

GERARDO MENDIZABAL AIZPURU (HONDARRIBIA)
RAFAEL LARRAÑAGA ALBIZU (AZPEITIA)
INAXIO AGIRIANO BERGARETXE (DONOSTIA)
LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI (EIBAR)
JOSU ALDAMA LARENA (ZUIA)



Bizi Baratzea liburua
5 opari



Europako herrien mapa
5 opari



Argia kamiseta
5 opari

ARGIAn gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIAkideak gure oinarria

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com